

1919tik | 2.483 zenbakia | 2015/11/15 | 3,90 € | argia.eus



ARGIA

SUSAN GEORGE
EKINTZAILE ALTERMUNDIALISTA

**“ALTERNATIBARIK EZ DAGOELA
SINET SARAZTEA DA
SISTEMAREN GARAIPENA”**



Pentsa elikagai kontsumo eredu egoki batek dituen abantaila guztiak: zure familiaren osasuna, gertuko ekonomia garatzea, gure lurra zaintzea, ingurumen garbiagoa...

Astero, gertuko ekoizleek landutako produktu ekologikoak eskuratu ditzakezu, baserritarrarekin adostutako prezio duin baten truke. Herritar eta baserritarraren arteko konfidantzazko harremana eraikitzen ari gara.

Pentsatu eta erabaki. Etorri Bashherri sareko kontsumo taldeetara.



Bashherri
sarea

60 talde baino gehiago gara jada Gipuzkoan. Zuk ere elikadura eredu berri honen parte izan nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan.

T. 615 767 086
bashherriak@gmail.com

www.basherrisarea.org

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Editoriala
- 8 Albiste laburrak
- 12 Gazteluko Plazatik
- 13 Hor dena gailua
- 14 Net Hurbil

IRITZIA

- 21 Garbiñe Biurrun Mancisidor
- 22 Joxerra Garzia
- 23 Fermin Erbiti
Joanes Etxebarria



TS Fundiciones-eko langileak Lakua aurrean protestan.

(ARGAZKIA: JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS)

- 44 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 46 DENBORAREN MAKINA
- 47 DENBORA-PASAK
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 ARGIA KOMUNITATEA
- 52 ARGI-KONTRA:
MARINA GARCÉS
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 16 | Susan George. Alternatibak badirela sinetsarazten / Sustrai Colina
- 24 | Industria lantegiak ekaitzaren ostean / Urko Apaolaza Avila
- 30 | Josemari Esparza eta Milagros Rubio, aurrez aurre / Xabier Letona
- 34 | Emakume laborariak, ikusezintasunetik atera nahian / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 38 | Nasa yuwe hizkuntza / Amaia Ugalde Begoña
- 40 | Ane Rodriguez, Tabakalerako zuzendariarekin elkarrizketa / Gorka Bereziartua Mitxelena

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Arrate, Axier Lopez, Eñaut Agirrebengoa, Estitxu Eizagirre, Garbiñe Ubeda, Gorka Bereziartua, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Jon Torner, Unai Brea, Urko Apaolaza, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Ekoizpenak: Berdaitz Goia. Idazkaritza: Aloña Soralluze, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Llorente, Jone Arzallus.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
HARPIDETZA:
Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekoa, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro.

DOAN ETA LIBRE



ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

ALDIZKARIA
ERABERRITUA



ARGIA

txikitik eragiten

BULTZA kazetaritza independentea

Harpidetu:

ARGIA astero, hilean 12 € baino ez.

ARGIA hamabostero, hilean 7 € baino gutxiago.

ARGIA hilero, hilean 4 € baino gutxiago.

Ertzetatik argia

Mezu bera behin eta berriz errepi-
katzeak gizartean izan dezakeen
eragina ezaguna da, baita hedabi-
deek prozesu horretan jokatzeko duten rol
garrantzitsua ere. 2007an abiatu zen ziklo
ekonomiko aldaketarekin ikusten ari gara:
azken zortzi urteotan saiakera ugari izan
dira eremu ofizialeetatik okerrera jada pasa
dela sinestarazteko. Boterearekin harre-
man estuena duten hedabideek zeregin
garrantzitsua izan dute mezu hori sozia-
lizatzen, nahiz eta oso ezbaian jartzeko
modukoa den.

Adibide bat besterik ez da, nahiko adie-
razgarria dena den, joan den asteko *The
New York Times* baten azalean ere azpima-
rratu baitute Espainiako Estatuko kasua,
komunikabideek banketxeen eta gobernu-
aren aldetik jasaten duten presioari buruz
argitaratu duten erreportajea. AEBetako
berripaperak funtsean zera dio: egunkariak
independentzia galdu dutela, kreditua ez
galtzegatik.

Euskal Herrian lehenagotik ere ezaguna
zen mota askotako interes taldeek hedabi-
deen inguruan zeukaten kontrol-nahia: al-
derdi politikoek, botere ekonomiko eta fak-
tikoek beti edukiko dute euren gustuko ildo
editoriala medioetan markatzeko tentaldia,
horrela jardunda errealitatearen kontakizun
zintzoa oztopatzen dela jakin arren.

ARGIAk bere burua horrelako presioeta-
tik libre nahi du. Talde itxien agindupean

baino, gehiengoarentzat onak direla uste
dugun printzipioetan oinarritzen da gure
informatzeko modua; eta proiektu komuni-
katibo honen finantzazioaren parte handi
bat gure komunitatearen esku egoteak
bermatzen du gure independentzia. Har-
pidetza ordaintzen dutenei, Piztu Ezazu
ARGIA bidez webgunean egiten dugun lana
ekonomikoki babesten dutenei, herri era-
kundeei, gure askotariko iragarleei, herri
mugimenduetatik proiektu hau bultzatzen
dutenei... Horiei denei zor diegu, besteak
beste, informazioa askatasunez landu ahal
izatea.

Komunitate horri bestelako zerbait eskai-
ni nahi dion hedabidea garelako erabaki
genuen aldizkaria berritzea. Itxura aldaketa
hutsa baino sakonagoa izango den zerbait
bilatzen dugu. Lan egiteko modua egokitu
dugu, sareko edukiak eta paperean argita-
ratzen direnak hobeto koordinatzeko. Eta
ARGIAren zaleekin harremana ere estuagoa
izatea nahi dugu –besteak beste, aurreran-
tzean Komunitatea izeneko orri bat argita-
ratuko dugu astero–.

Erronka handia dugu esku artean eta
txikitik eragiten erantzun nahi diogu: krisi
ekonomiko orokorraz gain, hedabideek bizi
duten sektore-krisian murgilduta gaude.
Eta euskarazko proiektu honi eutsi ez ezik,
herri honetako komunikazio esparruari
ekarpen handiagoa egin nahi diogu, ertze-
tatik argia emanez. ■





PANORAMA

Kurduen aurkako jazarpen politika irabazle Turkiako hauteskundeetan

Erdoganen AKP alderdiak gehiengo osoa berreskuratu du 5 hilabetetan beste 5 milioi bozka lortuta. Mugimendu kurdua jopuntuan izan dute hainbat eraso odoltsuk hauteskunderen aurretik. Askok Turkiako zerbitzu sekretuekin lotu dituzte. Suroç herrian bonba batek 33 lagun hil eta 104 zauritu zituen Kobanêko kurduekin elkartasunez egindako kontzentrazioan. Eraso suizida hartan hil zuten gazte kurdu baten gorpua amak jaso zuen unekoa da argazkia, Amed hiriburuan.

Argazkia: Irantzu Pastor





Arantza Santesteban

“Euskal Herriko ezker independentistaren mezua nahiko agortuta dago” (Gure Bazka / Hiru Damatxo Ideia Faktoria)

argia.eus-en ikusgai



Autogestio proiektuetan zaindu beharrekoak

Zeintzuk dira indarguneak eta zeintzuk zaindu beharrekoak kapitalismoaren logikatik aldendu nahi diren proiektuetan?



Barrura begiratzeko leihoak

Bost euskal presoren erretratuak biltzen dituen dokumentala, bost zinegileren eskutik.



KORTXOENEA

Kortxoenea eraitsita, kultur gun bat gutxiago Donostian

Lander Arbelaiz Mitxelena

@larbelaitz

Azaroaren 7an, 2.500 lagun inguru atera ditu kalera Kortxoenea gaztetxetik egindako deiak, “Gune autogestionatuak defenda ditzagun” lelopean. Bidean, begiz jo duten hurrengo eraikina seinalatu dute: Zectoria kaleko 20. zenbakia, Okendo kultur etxea baino pixka bat gorago. Udalarena da jabetza eta ekainean berritu behar dute Jaurilaritzari egindako lagapena.

Groseko gaztetxearen eraisketak zeresana ematen jarraitzen du. Batetik, eraikina husteko epailearen agindua beharrean, joan den azaroaren 3an aurpegia estalita zuten eta beltzez jantzitako dozena bat pertsonak eraikinaren barnean zeuden kideak

kolpeka eta bultzaka atera zituztelako. Bestetik, kanpoan Udaleko teknikariak zeudela ikusita, gaztetxeko kideek salatu dutelako Udala jakitun zela goiz hartan eraikinaren jabeak era ilegalean kanporatuko zituela gazteak. Udaltzaingoak parte hartzeari uko egin ziola jakin da ondoren. “Kortxoenea hustu duten modua oso aurrekari larria da gaztetxeen mugimenduarentzat”, adierazi dute.

Eraisketaren egunean, gazteek protesta moduan errepedea moztea erabaki zuten Ategorrietan. Ertzaintza gogor aritu zen lurrean eseri ziren gazteen aurka, bi atxilotu eta hainbat zauritu utziz.

Antigua auzoan dagoen Txantxarreka gaztetxeko kideek erabaki dute Udalarekin sinatzekoak ziren lagapena ez sinatzea oraingoz, “Udala konplize” dela sinetsita.

“Nik pertsonalki ez dut banku publikoan sinesten”

GREGORIO VILLALABEITIA, KUTXABANKEKO PRESIDENTEA

ADEGI Gipuzkoako patronalaren elkarteak Donostian antolatutako ekitaldi batean “zer iritzi duzu banku publikoaz?” galdetu diote Villalabeitiari: “Bere papera izan zuen, baina jadanik ez da horrela, nik pertsonalki ez dut banku publikoan sinesten”. Ekitaldi berean, Villalabeitiak ez du baztertu Kutxabank fusioatua izatea –“tamainak kezka sortzen digu”– eta horren inguruan hausnarketa abiatu dute finantza erakunde barruan.



MANIPULAZIO ESTRATEGIAK

Artaldea kontrolpean mantentzeko neurriak

Noam Chomsky linguista eta filosofoak gizarteak manipulatzen hedabideek baliatzen dituzten hamar teknika nagusiak bildu ditu. Azken hamarkadetakoa intelektual errespetatuenetakoa den honek egindako zerrenda euskaratu dugu.





800 euroko oinarritzko errenta unibertsala Finlandian

Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

Eman beharreko pausoak mahai gainean jarri ditu Finlandiako Gizarte Segurantzak, herritar orok herritar izateagatik gutxieneko diru-sarrerara jaso ahal izateko. Hilero 800 euro jasoko lituzke finlandiar bakoitzak, inongo baldintzarik gabe.

Herritar guztiei bizitza duina bermatzeko baliabidea izatea eta gizarteko desoreka ugari arintzea ditu helburu oinarritzko errenta unibertsalak. Pasa den apirileko hauteskundeetan Finlandiako Gobernura iritsi zen koalizioak, agindutakoari zor, bestelako ekonomia eredu bat ezartzeko egitasmoa abiatu du.

Lehenengo fasean, 550 euro kobratuko lituzke finlandiar bakoitzak, eta presatazio sozialen bat jasotzen duenak berdin kobratzen jarraituko luke; bigarren fasean, gainerako prestazioak ezabatu eta herritar bakoitzak 800 euro jasoko lituzke. Behin betiko proiektua, epeak eta inbertsioa 2016ko azaroan aurkezte da asmoa.

Alde eta kontra

Errenta unibertsalaren kontra erabili ohi den argudio nagusia da berau jasotzeko jendea lanik ez egitera bultzatuko

lukeela. Hori ez litzatekeela gertatuko eta enpleguaren kalitatea hobetuko litzatekeela diote errentaren aldekoek, ekintzailatzarako, auto-enplegurako eta berrikuntzarako aukerak ere zabalduko lituzkeela, eta lanari ordu gutxiago eskaintzeak beherantz doan lan eskaintza orekatzen lagunduko lukeela. Gainera, besteak beste pobrezia eta desoreka sozial eta ekonomikoei aurre egiteko bali du errenta unibertsalak, aberastasunaren birbanaketa bidezkoagoa eginez.

Ekonomia suspertzeko eta eredu justuagoa lortzeko errenta unibertsalaren alde daude finlandiarren %80.

Errenta unibertsala bideragarria dela frogatu zuten Gipuzkoan

Gipuzkoan oinarritzko errenta banakakoa, unibertsala eta baldintzarik gabea ezartzea bideragarria dela eta herritarren %75ak baino gehiagok bere bizi maila hobetuko lukeela frogatu zuen Jordi Arcarons Ekonomia katedradunak, 2014an Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sinposioan. 18 urtetik gorako biztanleek 658,5 euro jasoko lituzkete hilero eta adin txikikoek 131,7 euro.

Horretarako zerga sistema erreformatu behar dela eta gakoa borondate politikoa dela azpimarratu zuen Arcarons.

EKONOMIAREN TALAIAN

Veronica gehiago ez



Juan Mari Arregi

Iragan asteburuan hainbat talde solidario Bilbon eta Gasteizen elkartu ziren Veronicaren heriotzagatik haserre azaltzeko. Veronica neskame aritzen zen, eta sistema bihozgabe eta esplotatzailearen biktima izan da. 28 urteko nikaraguarra –herri hartan 9 urteko alaba zuen– urriaren 13an hil zen Derion, menpekotasun egoeran dagoen pertsona zaintzen zuen etxe berean. Bihotza lehertu zitzaion, ezin izan zituelako 24 orduko lanegunak gehiago jasan. Asteazpi egunez aritzen zen, deskantsu eta baimenik gabe, ezta sendagilearengana joateko ere. Esklabotza zaharra eta berria da sistema kapitalista honek dakarkiguna; ez lan eskubiderik, ez ordutegian mugarik, ez gizarte-segurantzarik...

Gure jendartearen Veronica asko dago, eta kapitalismoaren baldintzak gainditu ditzaketen arren, haietara makurtzen diren familia asko ere bai. Legeari helden diote euren enplegatuei inposaturiko lan baldintzak justifikatzeko. Veronicaren heriotzak zer pentsatua eman beharko lieke sindikatu eta erakundeei. Zein baldintzatan aritzen dira etxean eta zaintza lanetan dabilen kolektibo baztertu eta ikusezinak? Egia da sindikatuen aldarrikapenak jadanik lana dutenen baldintzak hobetzea zuzenduta daudela gehienetan. Hori horrela da. Baina, zer eskaintzen diete esplotazio gehien jasaten dutenei? Zer, etxeko lanetan aritzen direnei, edo langabezia daudenei, edo paperik gabeko migratzaileei?

Zenbat Veronica hil behar dira egianta kolektibo horiekiko konpromisoa har dezaten? Sistema kapitalista krudela bezain hiltzailea da. Baina sindikatuek eta erakundeek badute ahalmenik alternatibak eskaini eta Veronicaren moduko egoerak eragozteko. Borondate politikoa eta sindikala baino ez da behar, eta elkartasuna ere bai.



KIMA BERDEA

Lehen aldiz zigorra ezarri dio Jaurlaritzak Petronorri

PETRONOR. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak 20.001 euroko isuna ipini dio Petronorri, 2014ko ekainaren 21ean gertatutako hauts isurketa dela eta. Istripuaren berri berandu emateagatik zigortu dute Muskizko findegia, baina gertakaria arrisku gabekoa izan zela esan du Eusko Jaurlaritzak. Talde ekologistek adierazi dute positiboa dela Jaurlaritzak Petronorri isuna ezarri izana, baina oro har La-kuak findegia-ekin epelegi jokatzen duela. Haien ustez, frogatuta dago ekainaren 21eko ihesean sub-stantzia toxikoak jaurti zirela airera.

Ofiziala da: Kataluniak hasi du deskonexioa

Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

Gori-gori dago giro politikoa Katalunian, astelehen honetako parlamentuko saioaren ondoren. Presidente nor izendatuko den ez dago argi, bai ordea independentzia prozesua beste fase batean sartu dela onartutako adieraz-penarekin.

Prozesu eratzailea

Kataluniako parla-mentuak onartu duen ebazpenak baliogabe-tzat jo ditu Espainiako Konstituzio Auzitegia-ren sententziak. Par-lamentuari agintzen dio ofizialki Europako gobernu-akordioa komunikatzeko.

%53

Onartutako ebazpenak Junts pel Sí eta CUPeko parlamentarien babesa dauka, parlamentuko 135 ordezkarietatik 72. Alegia, katalunia-rrek irailaren 27an hautaturiko ordezkari-en %53k babestu du ekimena.

Beste bidea

Catalunya Si Que Es Pot-eko parlamenta-rien beste ekimen bat ere bozkatu da aste-lehenean. Abenduaren 20an egingo diren bo-zetatik osatuko diren Espainiako Gorteei erreferendum hitzar-tua eskatzen zaie.

ERREFUXIATUAK



3

eritrear iritsi dira Bilbora, errefuxiatuak Europan hartzeko planaren baitan. Bi urtetan Hego Euskal Herrian 1.400 hartzea aurreikusi da.

160.000 dira Europar Batasunean birkokatzea adostu dituztenak, baina 770.000 asilo eskaera izan dira EbN 2015eko lehen bederatzi hilabeteetan.



EUSKARABILDUA

Aurtengo Euskarabildua jardunaldietan, pantaila anitzak eta hizkuntzak izan dituzte hizpide. Linguistika teknologia berrietan, industria teknologikoaren proiektu erregionalak, TBARGIA plataforma... jorratu dituzte hizlariak.



GHK-REN ZORRA ALDUNDIAREN GAIN

Espainiako Gobernuak arautegian egindako aldaketa batek berretsi du Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoaren izaera publikoa dela, eta ondorioz, Partzuergoaren zorra Aldundiak hartu behar duela bere gain.



TURBO KID

Donostiako Fantasiakzko eta Beldurrezko Zinemaren XXVI. Asteko ikusleen arabera aurtengo film luzerik onena Anouk Whissellek, François Simardek eta Yoann Karl Whissellek zuzenduriko *Turbo Kid* izan da, beldurra eta komedia ardatz.

CUP, amildegiaren ertzean



Xabier Letona

@xletona

KOHERENTZIA, pragmatismoa eta erratzeko eskubidearen erpinen artean dabil CUP egunotan, bere ohiko udal esparruetatik askoz harago, Artur Mas eta Generalitateko lehendakartzaren zurrumbiloan barrena, gero eta indartsuago, gero eta estuago. Ia hilabete eta erdi joan da Kataluniako hauteskundeak egin zirenetik eta bi eskas geratzen dira hauteskunde berriak deitzeko epe amaierarako, urtarrilaren 10erako JxSí eta CUPen arteko akordioak ez bada hauteskunde berriak egingo baitira, inongo independentistak nahi ez duen egoera.

Kontua, azken finean, zera da: ea CUP Masen gaia presio estrategia gisa erabiltzen ari den edo amaieraraino eramango duen

Inork inoiz hain urruti iritsiko zela irudikatuko ez zuen CDC dago hari muturraren beste aldean. Gaitza dirudi orain prozesuan atzera egitea, baina oraindik ez da jokaldiaren alde gogorre-na hasi, beraz, dena gerta liteke. CDCn ez da falta hori nahiko lukeen sektorerik, Mas urrutiegi joan dela iritziz, jira noiz gauza daitekeen zain. Ondo letorkioke, beraz, Mas ez hautatzea eta honek hauteskunde berriak deitzea. Kontua da

CDCren indar harremanak nola dauden, eta CUPen erabakiak nola lagundu dezakeen sektore independentistena prozesuarekin aurrera jarraitzera.

Bide horretan oraingoz CUPek asmatu du, astelehenean Kataluniako Parlamentua adierazpen independentista eta desobedientziaren bidean jarritzaren printzipioz aurreikusi gabe zegoena. JxSí lehen unetik adierazpenetatik harago eramatea bilatu du eta prozesuan aurrera egiteko tresna garrantzitsuena konfrontazio demokratikoa izatea behartu du, Madrilekiko tentsiotik eta honen jarrrera ez demokratikotik independentzia elikatuko delakoan. Errealista oso, alde bakarreko independentzia aldarrikapenak (DIU) oraindik lekuri ez duela adieraztea bezain errealista. Independentismoaren barruko indar harremanak kontuan hartuta -335.000 boto CUPek eta 1.600.000 JxSík-, apustu ausarta, baina ondo atera zaiona.

EZ DAGO hain argi bigarren apustua nola aterako zaion, batez ere Mas ez hautatzearena muturrera eramaten badu. CDC bere horretan mantenduko balitz, badirudi logikoa Mas hautatzea litzatekeela, Mas Generalitateko lehendakaria izatea -ez ahaztu, bakarrik 18 hilabeterako- hauteskunde berriak deitzea baino kalte txikiagoa litzatekeelako. Egoera horretarako, hala ere, ia bi hilabete falta dira oraindik, eta CUPek aurretik presio itzelak jasan beharko ditu, eta bitxia bada ere, oraingoan Madrildik baino katalan independentismoaren aldetik. ANCK iragarri du jada, CUP eta JxSí akordioetara iristen ez badira, mobilizazioak iragarriko dituela bi aldeak presionatzeko. Ez da gaitza irudikatzen presio handiena CUPek jasoko lukeela.

CUP ez da txantxetan ibiltzen eta koherentzia bere ikur nagusietakotzat jotzen du. Hirukoteak arrakasta izan arren, adibidez, Isabel Vallet, Quim Arrufat eta David Fernandez parlamentari ohiak ordezkatu egin ditu. Kontua, azken finean, zera da: ea Masen gaia presio estrategia gisa erabiltzen ari den edo amaieraraino eramango duen. Hemen amaieraraino eramatearen kontraesanak: independentismoaren barne egoeran ez duela hainbeste behartzeko indar harremanik; zilegitasun demokratikoa -345 / 1.600-; independentziaren ikuspegi interklasista ahultzea; prozesua ez pertsonalizatzea dio, baina ez ote da CUP bera ere Masengan horrenbeste zentratuz prozesua pertsonalizatzen ari? Masen auzi hau presio estrategia gisa erabiltzen ari bada, akaso lortu du lortu beharrekoa, eta ordua ote da pragmatismoari bide emateko?

Baina gerta liteke horretan ere asmatzea, azkenean CDCk amore ematea eta Mas fase honetan sakrifikatzea. Konfrontazio demokratikorako CDCk duen borondatearen egiazko termometroa litzateke CUPen presio hau, baina akaso arriskutsuegia prozesurako. CDCren siglak dagoeneko iragana dira ia eta jadanik alderdia bera aurpegi aldaketan prestatzen ari da. Lehen urrats gisa, Espainiako hauteskunde orokorretarako Demokrazia eta Askatasuna hautagaitza aurkeztuko duela iragarri du *La Vanguardia*k. Eta, besteren artean, CDC Neus Monté Generalitateko jarduneko lehendakariordea ere prestatzen ari omen da lehen lerroetan jartzeko.

Ausartak koldarrak baino gehiago erratzen dira, baina mundua haiek aldatzen dute; hilerriak ausartez beteak direla ere egia da. Non ote zuhurtziaren oreka? Laster ikusiko dugu. Edo ez.

GARAI BATEAN
ABERATSA = ABEREAKE ZUZKANA

ORAINGO EGUNEAN
AFERATSA = AFERETAN ARI DENA



Mexikok duela 75 urte galdu zuen drogen gerra



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

1940an lau hilabete laburrez drogen ekoizpen eta kontsumoa aske izan ziren Mexikon, Lázaro Cárdenas lehendakari aurrerazaleak mediku eta adituen aholkuz hala erabakita. AEBak, ordea, drogen errepresioan murgiltzen ari ziren: yankien xantairi ezin egin izan zien aurre Cárdenasek. Mexikoko gaurko kaosa aukera galdu haren umea da.



El Chapo gobernuak askatu zuen, Mexikorentzako hobe dagoelako libre preso baino. Don Winslowk esan du, halako arrakasta bildu duen *The Cartel* nobela beltzaren idazleak.

Bortizkeriarik ikaragarrienak kontatzen ditu Winslowk liburuan. Kazetari bati aitortu dio ez duela irudimena gehiegi nekatu behar. "Kontatu dut nola 17 urteko sikario batek -10 urterekin hasi zenak- biktimari buruko larruazala kendu eta honen aurpegia erantsi zion baloi bati. Aurpegi horrekin ari zen hormari kolpeka! Ni ez naiz hori asmatzeko gauza".

Nola amildu da Mexiko leize horretan? Mexikon 300 dolarretan ekoiztua AEBetan 18.000n saltzen da. Dirutza horrek dena usteltzen du, polizia, soldatu, abokatu, funtzionario, politikari, gazte...

Konponbide bakarra drogak legeztatzea dela demostratzen du Winslowk zifra urri batzuk erabiliz. AEBak eta Mexiko artean urtean 46.000 milioi dolar gastatzen dute droga pertsegitzen eta kalteak osasungintzan konpontzen. Legezkoa ez delako, gainera, galtzen dituzte 47.000 milioiko sarrerak zergatan. Gastatuak eta kobratu gabeak batuta, 93.000 milioi.

"Erabili dezagun gazteei heziketa ona ematen, lan duina ekarriko duten enpresak sortzen, drogen mende daudenak ongi artatzen... Orain desegiten ari den gizartea salbatuko genuke!".

AEBetako zenbait estatu hasi dira

lehen urrats lotsati samarrak ematen drogen legeztatzean, funtsean marihuana. Gero eta sarriago entzuten dira hau-tu horren aldeko adituak, baita drogen kontrako gerran dominak irabazitakoak ere. Baina gaur bertan lortuko balitz ere, esan beharko genuke 100 urte iraun duela ustez gizartearen mesedez agintariek egindako petto ikaragarriak.

Bi liburuk kontatu dute nola galdu zen aukera 1940an: Juan Alberto Cedillo kazetariaren *La Cosa Nostra en México*-k eta Froylan Enciso historialariaren *Nuestra historia narcótica. Pasajes para (re)legalizar las drogas en México* titulu-daramanak.

Drogen errepresioaren arrastoak badira gutxienez XVIII. mendetik, Espainiako Inkisizioak Mexikoko jatorrizko jendeek hain nasai zerabilten peiotea debekatu zutenetik. XIX. mendean kokainaren eta beste narkotikoen eraginak hasi ziren aztertzen eta drogak legeztatu beharra aipatzen ere bai.

1917an Venustiano Carranza medikuak konbentzitu zituen Legebiltzarreko kideak drogak legez kanpo uzteko: hiru boto baizik ez ziren azaldu "gure arraza pozoitzen duten substantziak" debekatzearen kontra. Aldiz, beste mediku batzuk berehala hasi ziren justu alderantzizkoa eskatzen, narkotikoen legeztatzea.

Leopoldo Salazar Viniegra sendagilea buru zutela, lortu zuten Lázaro Cárdenas lehendakaria konbentzitzea. 1940ko otsailaren 17an argitaratu zuen

Mexikoko agerkari ofizialak *Reglamento Federal de Toxicomanía* deitua.


Gerra aurreko barealdi laburra

Juan Alberto Cedillok kontatu duenez, Mexikoko estatuak bere gain hartu nahi zuen debekatutako farmakoen monopolioa, horrela saihestuz kontsumitzaileek trafikatzaileretara jo beharra. Dekretuak iraun zuen hilabeteetan Estatuak doan eman zizkien marihuanazko zigarretak eskatzen zituzten presoei, kaleko heroinomanoei beren substantzia prezio txukunetan banatu zien bezala.

"Cárdenasek AEBei aurkeztua zien legea, honen funtzionarioei azalduz drogen trafikoa etetea ezinezkoa zela, polizia bezala agente bereziak erosita zeuzkalako, hain handia zen ordurako trafikatzaile batzuen indarra", dio Cedillok.

Mexikoko ezkerren mito nagusietako bat da Lázaro Cárdenas, herri xehearekin tratatu errazeko gizona, nekazari-tzako lurren erreforman urratsak eman zituen, Espainiako gerra zibiletik ihesi iritsitakoei ateak zabaldu zizkiena. Drogen arautzea 1940an justifikatu zuen oraindik XXI. mendean aipatzen diren argudioen oso antzekoekin.

Ez zen Cárdenasen beroaldi bat. Mexikok itzal handia zuen garai haietan nazioarteko gobernuen artean eta Nazioen Ligan -gaurko NBERen arbasoa- beste zenbait agintari ere debekuak kendu eta drogen kontsumoa arautzeaz ari ziren. Alkoholaren debekuak



Lázaro Cárdenas presidentea 1940 inguruan nekazari mexikarren artean trenetik jaisten. Politikari aurrerazale eta ausarta, 1940an toxikomaniak legez arautu zituen, konbentziturik debekuak drogak garestitu, trafikatzailleak aberastu eta estatua usteltzea besterik ez zuela lortzen.

mafia indartzeko baino balio izan ez zuela ohartuak ziren.

Berehala heldu zen AEBen erreakzioa. Cárdenasek Harry Anslinger aurkitu zuen aurrez aurre. Anslinger izana da AEBen narkotikoen debekuaren ortodoxiaren zaintzaile, 1930an hasi eta 1962 arte bera izan baita Narkotikoen Bulego Federalaren buru, Hoover presidentarekin hasita Roosevelt, Truman, Eisenhower eta Kennedyrekin. 32 urteko agintaldi amaiezina.

1940an lau hilabetez trafikatzailleak estu eta larri ibili ziren Mexikon, drogen arautzeak negozioa izorraturik. Baina AEBek, Anslingerrek kanpaina gogorra egin ostean mediku mexikarren eta hauek narkotikoen inguruan sortutako dokumentazioaren kontra, ultimatuma bidali zioten Cárdenasi: edo legea bertan behera utzi edo Mexiko geratuko

zen botikarik gabe. Garai hartan, orain bezala, AEBek kontrolatzen zuten botiken industria, orduan nagusiki produkzioa, gaur egun aski patenteen jabe izatearekin.

Laster Cárdenasek ezin izan zuen gainditu gringoen presioa. Ekainaren 10ean bertan behera utzi zuen Toxikomanien Arautegia. Udazkeneko hauteskundeetan Cárdenasen lekuan, nahiz eta PRI alderdi berarekin, Manuel Avila Camacho iritsi zen lehendakaritzara. Avila argi eta garbi kokatu zen debekuzaleen lubakian. Mundua gerran zegoen eta AEBak ez zeuden txantxetarako.

Hilabete gutxiren buruan Avilak armada bidali zuen heroinaren ekoizleen kontrako operazio militarrean Sierra Madrera, *Triangulo de Oro* deitzen dioten eskualdera. Horkoxea da Joaquín

El Chapo Guzman, Sinaloako karteleko buru ospetsua, berrikitan presondegitik ihes eginga Estatuaren kontrata batek txukunago zulatuko ez zukeen tunel batetik.

Beti Sinaloa. 1970eko hamarkadan eskualdeko nekazariak etekin handia ateratzen zietenean heroinaren prezio garestiei, Mexikoko armadak operazio bortitzak burutu zituen AEBek narkotrafikoari deklaraturako gerra zela eta. 2006tik 100.000 heriotza eta 26.000 desagertu eragin dituen gerra.

Dio Encisok, bera ere Sinaloakoa: "Herriok izan dira giza eskubideen desmasien laborategi eta biktimak bilakatu dira erasotzaile. Mexikoren drogekiko harreman guztia dago bortizkeriaz, us-telkeriaz eta oinazez beterik, baina beti ez da hala izan, eta ez du betirako zertan izanik". ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Susan George, altermundialista

«Kimera da jendearen sufrimenduak politikak alda ditzakeela pentsatzea»

Txanogorritxoren ipuina kontatzen zidatenean Hiru txerritxoena eskatzen nuen, Hiru txerritxoenarekin hasiz gero Edurne Zurirena, Edurne Zurirena zabaldu orduko Mari Errauskinena... denak ipuin berbera zirela ohartu nintzen arte.



Sustrai Colina

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Alarma, alarma, alarma, alarma...

Zibilizazioaren historian lehen aldiz, gizakia giza espeziea deuseztatzen ari da. Petrolioaren deskubrimenduak dolarrak jarri zizkigun begien partez, altzairugintzaren loraldiak orotariko gas festa ekarri zuen... Sistematikoki bihurtu ditugu aukerak mehatxu. Pentsa, 200 urte txatxu aski izan ditugu 200 milioi urte burutsu komunetik behera botatzeko. Lurraren gainean inoiz egon den espezierik kaltegarri eta toxikoen gara. Hori da arazo guztien erroa. Hori hala deno, jendea aski ongi bizi den, denentzat enplegua dagoen, denak ongi sendatu daitezkeen, eta hurrei heziketa aberatsa eskaintzeko aukera duen jendarte duina aldarrikatzea iraultzailea izatea da. Ahoa ireki orduko, “ezin dugu besterik egin”, “aukera txarren artean onena hautatu dugu”, “hauxe da egokitu zaigun garaia” bezalako fatalitateak aurpegiratuko dizkizute. Gure gogoetan alternatibarik eza txertatzea da sistemaren garaipena. Alternatibak, aitzitik, egon badaude, plantan ezartzeko borondatea da falta dena. Martxa honestan, alta, lehenago etorriko da giza espeziearen desagertzea patrikak bete eta bete ari diren borondatea baino.

Gainontzeko krisiak krisi ekonomikoaren ke-gortinarekin atzean ezkutatzeko borondatea ikusten dut nik.

Bi muturreko joera oker antzematen di-

tut. Hainbat krisiren arteko inoizko gurutzaketa nahasiena bizi dugun irudipena zabaltzeko interesa batetik, eta arazo guztien oihana krisi ekonomikoaren zuhaitzarekin estali nahia bestetik. Izan ere, ez da aiantzi behar medioak bozgorailuak direla. Interesa dutena azpimarratzeko bolumena igo egiten dute eta estali nahi dutena isiltzeko jaitzi. Egun osoan krisi ekonomikoa gora eta behera dabilatzala iruditzen arren, krisi ekonomikoaren ikuspegi jakin batez baizik ez dira ari. Noiz aipatzen dira bankuen ankerkeriak? Noiz biluzten da finantza sistema? Irakurri duzu sistematik irteteko asmorik? 2008ko krisi basatiaren ondotik denak lehen bezala jarrai dezan utzi dugu. Ikusi besterik ez dago, merkatuetan finantza tresna deribatuak eta truke operazioak biderkatu egin dira. Hori ez da hedabideetan agertuko, baina horrek ez du esan nahi, ez gertatzen ez denik, ez gertatzen dela ez dakigunik. Askatasuna fakturak norberak ordaintzetik hasten da, ordea, eta hedabide handiak fortuna handiagoen esku daude.

Askatasunaren fakturretatik fakturen askatasunera pasa gara?

Eskubide sozialen eraistean urrats bat haratago joateko aitzakia baizik ez da izan krisi ekonomikoa. Reagan eta Thatcherrekin gorpuztu eta munduaren hegoaldean esperimenduak eta findu zen

neoliberalismoa aplikatzen zaigu egun. Gu dolarean txikitu baino askoz lehena-gotik dago doktrina asmatuta eta olioizatuta. Oso modu inteligentean pentsatu, garatu eta ehundu dute amarauna. Aspaldi ulertu zuten boterea iraunkor-ki lortzeko bortizkeriak soilik ez duela balio, jendearen garunean sartu behar dela, ideiak gogoetan txertatu, iritzi sortzaileak paisaia urtu... Dena egin dute zuk pentsatzea nahi dutena zuk zure kabuz pentsatzen duzula sinets dezazun. Neoliberalismoak dirutzak gastatu ditu ideiak fabrikatzen. Armagintzan zein kimikan ateratako fortunak fundazioetara bideratu dituzte ideiak sortu eta pestiziden gisan jendartean hedatzeko. Ordaindu behar denean ordaintzen dute, saritu behar denean saritu, ez daukate erreparorik bere burua alternatibotzat duen puntako ikerlaria fitxatu eta arras-toan sartzeko, eta batez ere, garaiezinak diren joko-zelai bihurtu dute mundua. Izan ere, neoliberalen arrakasta ez dator denetan onenak izatetik, beraiek onenak diren zelaian partidak jokatzera behartzetik baizik.

Zer egin du ezkerrek horri aurre egiteko?

Askorik ez. Errealitate gorria atarian ikusi arte ez gara mehatxuaz jabetu, eta okerragoa dena, gure ideiak askoz hobek- zirela uste genuenez ez ditugu defendatu ere egin. Arrazoia izatea aski zela kon-



Susan George

1934, Akron (Ohio, AEB)

Intelektual, idazle eta militante altermundialista. Sorbonan lizentziatua eta Pariseko goi-mailako Gizarte Zientzien eskolan doktratua *Gosearen estrategiak* izenburuko tesiarekin. Amsterdam Transnational Institutuen sorreran partaide, Greenpeaceko administrazio kontseiluko kide ohi, Mundializazioaren Behatokiko lehendakari ohi, ATTACen sortzaile eta ohorezko presidentea da egun. 2012an, beste intelektual eta eragile sozio-politiko batzuekin batera, Roosevelt kolektiboa sortu zuen hondoratzeko ekonomikoa ekidin eta jendarte hobea sortzeko hamabost proposamen plazaratuz. *Le Rapport Lugano*, *Un autre monde est possible si...*, *Leur crise, nos solutions* eta *Les usurpateurs* dira bere liburu esanguratsuenak.



Bizi! mugimenduak gonbidatu zuen Susan George urriaren 11ko Alternatiba Garazi topaketetara. Egunean zehar 3.500 lagun bildu ziren.

BIZI!

bentzituta bizi izan gara, lastoa eta garia aukeran jarrita jendeak gariaren alde berez egiten zuela sinetsita. Askatasuna zein aniztasuna ez badituzu defendatzen, merkatuak dena konpondu dezakeela eta aterabiderik onena merkatuarena dela sinesten bukatzen du jendeak. Pentsa, austeritate politikak iragarritz Thatcherrek "ez dago beste alternatibarik!" aldarrikatu zuenean, ezkerraren jokamolde eta pentsamolde guztia blokeatu zuen lau hitzeko esaldi batekin. Horren atzean, ordea, estrategia burutsua, dirutzak eta lana daude, ez espiritu santua.

Lau hitzeko esaldi batekin pitzatu daitezke klase sozialak?

Identitatearen politika garatuz irabazi du sistemak klase sozialen bataila. Dena dago eginda norbanakoak euren identitate pertsonalaz arduratu eta elkarrekin eraiki ahalko genukeena ahanzteko. Homosexualen ezkontza homosexualena soilik dela sinestarazten digute, etorkinen afera etorkinen kontua baizik ez dela, abortatzeko eskubidea abortatu behar dutenena bakarrik... Identitatearen politikak izugarri frenatu ditu borroka progresistak. Bestelako mundu hobe baten aukera identitatearen bidez zatitu eta pitzatzea izan da sistema neoliberalaren estrategia. Hori hala, nola ez dira aldatuko klaseak? Gure amamaren sasoian,

diruak garrantzia zuen baina gaur egun duena baino askoz gutxiago. Diruaz gaindiko elementuek ere saretzen zuten klase soziala. Gaur egun, ordea, sozialki diruak jartzen zaitu zure lekuan, ez beste ezerk.

Sufrimenduaren ezteandak aldatu dezake hori?

Jendeak pazientzia harrigarria du, behar baino askoz gehiago jasaten ari da. Erreboltarako, alta, elkartzeko egiturak, enpatizatze guneak behar dira, eta tamalez, sufritzen duen jendea biltzeko topagune eraginkorrak falta zaizkigu. Horregatik iruditzen zaie batzuei eskuin muturra dela euren minak arinduko dituen ukendua. Ez dira ohartzen desberdintasunak areagotzen duela pairamena. Izan ere, buru-gaixotasunen, suizidioen, alkoholismoaren, droga menpekotasunaren, gazteen delinkuentziaren, obesitatearen... erroan desberdintasun sozialak daude. Sufrimendua ez baita materiala soilik, jendartean zokoratua eta gutxietsia izatea ere bada. Eskailera sozialaren kontzeptua hain barneratua izateak izugarritzko kaltea egiten dio gure osasunari. Gora iritsi nahi eta ezina, eskaileran gorago daudenekiko malerus sentitzea, etengabe nork menostua izatea... Tortura hutsa da! Bazterketa sistema bat da gurea, onenak hartzen eta gainontzekoak

alboratzen dituen. Horixe mundializazioaren ikur gorena. Hala, kimera da jendearen sufrimenduak politikak alda ditzakeela pentsatzea.

Bozkek alda dezakete mundua?

Hor dago Tsipras, hor dago garai batean esperantza iturri izan zen Obama... Ez dut nik esango bozkatzeak ez duela deusetarako balio, okerrenerako gonbitea litzateke. Arazoa da botoak salgai daudela. Estatu Batuetan, esaterako, aberaskiloek nahi beste diru sartu dezakete hautagaien kanpainetan zein propaganda aparatuetan, eta haragia ahula izateaz gain, patrikak beratsen du bihotza. Bozkek erostetik hasten da demokraziaren usurpazioa. Hala, politikariak merkatuaren erabakiei bedekazioa emateko besterik ez daude, eta bitartean, merkatuaren erabaki oro erabaki ona dela dioen doktrina zabaltzen eta sendotzen da. Izugarria da merkatuaren diktadura. Botere ekonomikoaren eragile nagusiei edozertarako eskubidea onartzen die ekonomikoki boteretsuak diren bitartean. 30 urtez lobbyak neurri eta kontrolik gabe hazten utzi dituzte, aditu batzordeetan parte hartzen dutenen %90 enpresa handietako jendea da... Ez dago miraririk, ereiten duzun ideologiaren arabera lege uzta biltzen duzu. Nork gobernatzen du? Norentzat?

“Klima aldaketak errotik bereiziko du mundua, euren ipurdia salbatzen ahalko dutenen eta ezingo dutenen artean”.



Zertarako behar dituzte enpresek estatuak itzaletik gobernatzeko ez bada?

Hori indartzera dator TTIP?

Enpresa transnazionalak 20 urte daramatzate jokaldia prestatzen eta aitzina jotzeko tenorea iritsi dela erabaki dute. Hala, tribunal pribatuak hobesten dituzte, legeak egin eta desegiteko aukeraren jabe egin nahi dute, enpresaren etekinak kaltetzeko moduko edozein neurri hartzen dituzten gobernuen aurkako auzibideak zabaltzeko modua izan. Aspalditik zebiltzan lotsa galduta eta disimulua galdu dute orain. Alabaina, jendea ez da tontoa, ulertu du zer dagoen jokoan eta TTIPen aurka altxa da. Hori da enpresek espero ez zutena. Bulegoetan pentsatu, bulegoetan adostu eta bulegoetan itxiko zen afera bat zela uste zuten, ez zela inor ezertaz konturatuko. Drakularekin egin zutena egitea dagokigu, banpiroa argitara ateratzea, ea horrela hiltzen den.

Egoera irauli daitekeela frogatzen du horrek?

Poliki eta pazientzia handiarekin egoera makurrena ere irauli daiteke. Bakoitzak egiten dakiena ahal bezain ongien egitea da bidea, ondokoa bere arloan zure antzeko bilaketan ari dela ohartzea, sinestarazi nahi diguten bezain aparte ez gaudela ez ahanzte. Iritsiko da indar guztiak bat egingo duten eguna. Ez da alferrik masa iritzia elur-jausien parekoa. Urteak joan eta etorri malutak elkarren gainean pilatzen dira, eta halako batean, itxuraz beste guztiak bezalakoa den maluta batek elur-jausia eragiten du. Mohamed Bouazizi-ren historiak frogatzen du inoiz ez dela jakiten noiz. Tunisiako barazki saltzaile bat zen, erabat ezezaguna. Enegarren jazarpenaren ostean bere barazkiak kendu zizkion poliziak. Baldintza horietan ezin zenez familia aurrera atera, kalera irten eta bere burua imolatu zuen, udaberri

arabiarrari hasiera emanez. Elur-jausia eragiteko hain gertakari lazgarriarik behar ez izatea espero dut, baina...

Ez diezagula elurrak etorkizuna estali.

Geopolitikoki Txinak pisu handiagoa izango du, Ekialde Hurbileko etorkizuneko potentzia Iran izango da, klima aldaketak egun kolpatzen dituen eskualdeak bortizki kolpatzen segituko du, mundializazioak geroz eta jende gehiago utziko du bide bazterrean, harresiz jositako Europa militarizatu bat eraikiko da... Hori da sistemak errefuxiatuen krisiari emango dion irteera. Denok dakigu hilabete hauetako errefuxiatuen exodoa ñimiñoa dela ezagutuko dugunarekin alderatuta. Horregatik diot klima aldaketak errotik bereiziko duela mundua, euren ipurdia salbatzen ahalko dutenen eta ezingo dutenen artean. Gainera, euren ipurdia salbatu dezaketenak ere etengabe euren ipurdia salbatzera kondenatuta egongo

dira, noiz arte biziraun ahal izango duten jakin ezinik. Klima aldetari berehala adarretatik heldu ezean jai daukagu. Alferrik ikertuko ditugu ondorioak ez badiugu kausak desagerrarazten.

Norbere bizitzan, alta, badira elurra lurmen-du arren desagertzen ez diren lorratzak.

Ez nintzen politizatu sortu, ez ninduten ardatz politikoen inguruan hezi, nerabe nintzela ez nion kasurik egiten politikari. Vietnameko gerrak politizatu nau, nire herrialdea hainbesteko sarraskiak burutzeko gai izateak. Behin politikoki aktibo bihurturik, han-hemenkako jende mirregarria ezagutu dut, bizitzan zer borrokatua izatea zarenari zentzia ematen dion altxor handi bat dela ohartu naiz, eta zorionez edo zoritxarrez, beti kausitu dut zeren alde borrokatua. Egun, badakit zer dagoen nire esku, badakit jakintza eta ezagutzaren artisau bat naizela, gauza konplexuak sinpleki esplikatzea dela nire ardura. Gainontzean, mundu guztia bezalakoa naiz, seme-alabak ditut, bilobak... Garai onean sortu, garai onean bizi eta okerrean ezagutu gabe hilko naiz, okerrean ekiditeko egin nezakeena eginik. ■



Off the record: Haurtxoa

Bada egia handiak esateko boza altxa behar ez duen jende bat, energia transmititzeko neurritz kanpo mugitu behar ez duena. Horietarikoa da Susan George, dotorezia anglosaxoiaren eta heziketa frantsesaren arteko koktela. Elkarriketa bukatu, alta, siestatik esnatu berri den haurtxo batekin topo egin eta akabo heziketa frantsesa zein dotorezia anglosaxoia: mingaina ateratzea soilik falta izan zaio. Belarritik belarrirako irribarrez abiatu da hitzaldia ematera, haurtxo horrek mundu hobe bat ezagutu dezan.



Kalean da azaroko

aizu!

- Garraitzen, aztarna historikoak azalera
- Euskaraz aritzeko motibazioen xerka
- Joseba B. Lenoir arin-arin
- Ezusteko kontzertuak Bilbon
- Behobia-Donostiaz berbetan
- Zer da TTIP?

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizu.eus

Etorkizunaren aurka

Bi gertaerek atentzioa eman didate azken hilabete honetan: lehena, Arantza Quirogak –Euskadiko Alderdi Popularreko presidente zelarik– aurkeztu zuen proposamena, eta bigarrena, Kataluniako Parlamentean aurkeztu dutena. Biek dituzte ezaugarri komunak: bat, etorkizuna argitzeko ekimen ausart baten aurkezpena da, bizikidetza errazteko edota muga batzuk gainditzeko. Bi, ekimen bien aurrean antzeko erreakzioak eta erantzunak izan dira berauek geldiarazteko eta oztopatzeko. Biek dituzte paralelismoak.

Quirogak proposatu zuen Eusko Legebiltzarrean Askatasuna eta Bizikidetza lan taldea edo batzordea. Deigarriena eta ausartena hauxe izan zen: proposamena Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi guztiei –EH Bildu barne– zuzendu zitzaiera eta indarkeriaren “gaitzespena” eskatu beharrean, bere “errefus” garbia exijitzen zuen. Terminologia kontuak alde batera utzita, argi zegoen, eta horrela adierazi zuen Quirogak berak dimisioa aurkeztu zuenean, egungo egoera gainditu nahi zuela, Alderdi Popularra aldatzen saiatu zela bizikidetzarako tresna bihurtu zedin. Azken finean, bere asmoa Legebiltzarreko talde guztien arteko akordio zabala lortzea zen Euskadin askatasuna eta bizikidetza gidatzeko beharrezkoak diren printzipio eta baloreen bitartez. Zentzuzkoa bazirudien ere –eta ausarta, noski–, berehala etorri zen Madrildik erreakzio bortitza, erretiratzeko agindua –Quirogak berak aitortu zenez– eta, berarekin, bere dimisioa eta Alderdi Popularraren jarrera mantentzea. Madrildik iritsi zena, hain zuzen ere, aurrera egiteko aukerak ixtea izan zen, arazoak bere horretan jarraitzea eta, beraz, etorkizuna oztopatzea edo atzeratzea –edo nahia, behintzat–.



Garbiñe Biurrun Mancisidor

LEGELARIA

Deigarriena eta ausartena hauxe izan zen: proposamena Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi guztiei –EH Bildu barne– zuzendu zitzaien eta indarkeriaren “gaitzespena” eskatu beharrean, bere “errefus” garbia exijitzen zuen.

Bestalde, Kataluniako Parlamentean Junts Pel Sik eta CUPEk –gehiengoak, beraz– Kataluniako Errepublikak sortzen hasteko lehen urratsa adostu dute. Ez dut orain akordio hori aztertuko, baina

bai esango dut gehiengo parlamentario hori erantzuten ari zaiola irailaren 27ko hauteskundeetan hartutako konpromisoari eta, horregatik, ez zuela sorpresa izan behar.

Kezkatzen nauena da, berriro ere, Estatuak –Espainiako Gobernuak eta hainbat alderdi politikok– akordio horren aurrean aurkeztutako erreakzioa eta ematen ari zaion erantzuna. Alde batetik, argi dago Katalunia izango dela datorren abenduaren 20ko hauteskundeetako gai nagusia eta, horretarako, batzuek erabaki dute erantzuna “konpartituko” dute, badaezpada ere; honela, inork ez du ez irabaziko ez galduko gai potolo honekin. Horrela ikusten dut nik Gobernuak, PPK, PSOEek eta Ciudadanosek azaldutako jarrera: Estatu gaia, denok bateratua –printzipioz, behintzat– eta denok Kataluniako Parlamenteko independentziarantz marraztutako bide orria gelditzeko prest. Erantzun desberdina –printzipioz ere– Podemosek edota Izquierda Unidak eman dutena, noski.

Esan digute legediak eskaintzen dituen aukera guztiak agortuko dituztela horrelako ekimenak aurrera egin ez dezan. Horrek esan nahi du, hasteko, Konstituzio Auzitegira joko dutela eta, gero, beharbada, Konstituzioaren 155. artikulua aintzat hartuta, Gobernuak, Senatuaren gehiengo absolutua bildurik, dagozkion neurriak hartu ahal izango ditu Kataluniako Erkidegoa bere eginkizuna nahitaez betetzera behartzeko.

Bistan denez, Kataluniaren etorkizuna gauzatzea oztopatu eta debekatu nahi dute. Edozein pertsonaren edo herriren etorkizuna Gobernuaren esku balego legez. Zorionez, etorkizuna auzolanean eraikitzen da. ■

Bidegorri Zoo(logikoa?)

Tximu jendearen eta giza jendearen artean alde baino antzekotasun gehiago dagoela aldarrikatzeko, primateen sentiberatasuna, barre zein irribarre egiteko gaitasuna eta are euren artean hizkuntza gisako komunikazio sistema eratzeke gauza direla frogatzen ahalegintzen dira ikerlariak.

Askoz ikerketa gutxiago egin da alde-rantzizko bidetik, eta zinez harrigarria iruditzen zait hori, tximu jendea eta gu funtsean berdinak garela berdin-berdin frogatu baitaiteke aurreko atzera ere, hots, ez primateek giza ezaugarriak dituztela erakutsiz, baizik eta gizakiok tximu ezaugarri mordoa dugula egiaztatuz.

Jai egun eguzkitsu batean, Donostiako bidegorririk erabilienean barrena bizikletaz nindoala, izan nuen tximu kontu hauetara eraman nauen agerkundea: bat-batean, zoologiko zooro (zoo-oro) ez batere logiko baten traza nion nion bidegorriko ikuskizunari.

Orain debekatu egin nahi omen diete oinezkoiei bidegorrian ibiltzea, bidegorriak bizikleta eta patinentzat soilik direla argudiatuz. Ni neu, bizikletaz moldatzen naiz ia beti Donostian, eta zerbait esan nahi nuke horretaz.

Hasteko, argi eta garbi aldarrikatu nahi dut asko direla bidegorrian oinezkoek baino enbarazu handiagoa egiten duten espezieak. Patinak eurak, esaterako, aurrera egingo badute bidean ezker-eskuin eroan ibili behar izaten baitute, paretik datorren txirrindulariari izua eraginez.

Patinen aldean, izugarri zuzen ibiltzen baitira patineteak, baina horiek ere badute beren alde txarra: bidegorrian brausta!, sartu eta irteten dira, eta geratu ere gutxien uste denean gertatzen dira, seko.

Bidegorriko espezie batzuek talde izaera nabarmena dute, tropelkoiak dira oso. Ama aitzindari eta aita azken



Joxerra Garzia

IDAZLEA



Antton Olariaga

putz jarrita, bien artean bi, hiru edo lau ume hor joaten dira: batzuk bizikletaz ikasi berri, eta bakarren bat, hain okerre, orduantxe ikasten ari...

Zoologiko metaforikoak eta hitzez hitzezkoak bat egiten duten espeziea, bizikletan doazela uhalean lotuta zakurra daramatena da. Jakina, zakurrik esanekoak ere, bera doan bideaz bestaldean beste zakur baten usaina hartzen badu, hara joko du derrepente, jabeari baimenik eskatu gabe (trafiko arauak ez dira zakur-eskoletan lantzen, oraingo bederen, etorriko da-eta hori ere).

Kostaldekoko bidegorrietan ohikoa den beste espezie bat: bizikletari esku bakar batez heldu eta libre geratzen den besapean surf taula hartuta ibiltzen direnena. Beste batzuk, berriz, hor ibiltzen dira, ziztu bizian, eskuko telefonoari begira, zigarroa erretzen edo Kontxako marko paregabea ederretsiz.

Kontuan hartu hemen banaka aipatu ditugun bidegorriko espezien artean nahasketak gertatzen direla maiz: ume-karabanaren aitzindari doan ama joan daiteke aldi berean zigarroa erretzen eta telefonoz hitz egiten. Era berean, gerta liteke zakurra uhalean lotuta daraman txirrindulariak surf taula luzea eramatea besapean...

Nik neuk, goiz eguzkitsuetan nahiago izaten dut errepidean ibili, bidegorrian baino. Bizikleta biziki maite dut, baina are bizikiago bizia.

Korrikalari eta oinezkoiei dagokienez, niregatik libre lukete bidegorrian ibiltzea. Hori bai: egin dezatela kontu mantso doan ibilgailuak direla, baina ibilgailu azken batean. Hots, ibiltzeko eskuintetik ibil daitezela beti, gainerako auto-mobilok bezala: tropelik osatu eta bidea oztopatu gabe.

Ez dakit tximu jendearen artean bidegorririk ba ote dagoen. Baina, izaitekotan, ziur nago ez dela han sortuko guretan hainbat istilu eta arazoorik. ■

Galderak egiten ibiltzeko ohitura ergel hori



Fermin Erbiti
KAZETARIA

Eskolan ikasten den leziorik garrantzitsuena da, garrantzitsuena ez dela eskolan ikasten". Ideiarik ere ez nori entzun nion esaldia, baina guztiz bat nator mezuarekin. Eskolak asko eman dezakeela jakin arren, haren mugen berri ere badugu. Inork ez du uste seme-alabak geletan sartu eta hortik jakin beharreko guztiaren jabe aterako direnik. Batetik, eskolan ergelkeria asko ikasten-edo ditugulako; eta, bestetik, bizitzako lezio nagusiak beste bide batzuetatik datozkigulako. Guztiok dakigunez, asko dira bidera ateratzen zaizkigun titulurik gabeko irakasleak, libururik gabeko lezioak: gozoak batzuk, garrantzak besteak. Sekula ahanztiko ez ditugun ikasgaiak. Kolpean barneraturik, kolpeka askotan.

Ikasle nintzela, niretzat tortura hutsa ziren jarduera askotan aritu nintzen. Preteknologia, izena eta izana gorrotagarriak zituen ikasgaia, bat aipatzeagatik; matematikako problema nazkagarriez ere oroitu ez ezik, amets gaiztoen protagonista ditut, oraindik ere, noizean behin; epe laburragoan sufrituagatik, sekula ulertu ez nituen kimikako kontu ilunak ere eskola garaiko torturen sailkapenean sartuko nituzke.

Hamabost urteko mutikoari, lehen aldiz, nondik jo nahi zuen galdetu bezain laster amaitu zen sufrikarioa. Eta, bat-batean, eragiketa eta formula haiek atzean uztearekin batera desku-

britu nuen liluratu ninduen ikasgaia. Irakasleak gai bat mahaigaineratu eta horretaz aritzen ginen solasean, nor bere iritzia emanez: denboraren joan-etorria, edertasuna, egia, justizia... Bitxia zen duela mende askotako jakintsu batzuek horretaz esanikoa irakurtzea: gure harridurarako, hain testu zaharrak berriak ziren aldi berean, gaurkotasun handikoak.

Aitortu beharra daukat: ikasgai hartan landurikoak soluzio argirik ez izatea ere oso erakargarria zitzaidan. Gehiegitan ibilia nintzen matematikako labirintoetan barna galdurik, irakasleak arbelean idatziriko soluzioaren arrastotik hain urrun, haraino nola arraio hel zitekeen ulertu ezinik. Ikasgai berriaren gakoa, nire zorionerako, bueltaka ibiltzea zen, batetik bestera, sekula helmugaraino heltzeko aukerarik gabe. Urtetako esperientziak erakutsia banekien horretan aise mugituko nintzela.

Filosofia zuen izena ni liluratu ninduen ikasgaiak, orain hezkuntza sistematik kanpo utzi nahi duten berbera. Pentsatzen hasita, erabakia ez da harritzekoa. Izan ere, galderak etengabe egiten ibiltzea, inora helduko ez zarela jakinik, denbora-galtze hutsa da, ergelkeria. Gure gizarteak gauza praktikoak nahiago ditu, berehalako etekinak ematen dituztenak. Galderen orde, erantzunak: ahalik eta gehien, ahalik eta azkarren. Klik batean, ahal bada. ■

Jo ta ke



Joanes Etxebarria
KAZETARIA

Dependentziari herra ukaitea eta independentzia aldarrikatzea ohitura bilakatu zaigu batzuei gazte-gaztetatik. Bi estatuen partez, Euskal Herriko gobernu baten menpe izatea nahiago genuke. Baina ttipitik sartua dugu buruan ideia hori, eta ez diogu sobera kasu egiten, ez segitu beharreko estrategiari, ezta gauzagarri ote den pentsatzeari ere.

Zigarreta ala zigarroari menpekotasun handia diot eta azken bost egunak batere piztu gabe iragan ditut. Garaipentxo bat izan da egun bakoitza. Porrot handia seigarren egunean bat piztu izana. Baina in-(eta)-dependentzia gora eta behera aipatzeko balio izan dit, eta pentsakor utzi nau.

Azkenean, menpekotasuna zein heinetara errota den sentitzen baita, utzi nahi denean. Ez delarik fisikoa mentala da, eta ez dakit zein den okerreana. Menpekotasunarekin bukatzea eguneroko bataila da, bereziki ez denean konpentsazio prozesu bat abian ezarria. Erran dezadan duela urte batzuk hipnosiari esker zigarretak zurezko zotzekin ordezkatzun nituela. Estatuen kasuan, hirugarren estatu batek konpentsa lezake besteekiko dugun menpekotasuna. Baina hura heldu artean, zein zaila den loturetatik deslotzea, nahiz eta ez ukan ezta nikotinaren sentsazio lasaigarria ere. ■

INDUSTRIA LANTEGIAK EKAITZAREN OSTEAN

Ez da ezer berdin izango, ez gara itzuliko krisiaren aurreko egoerara. Baina nola eutsi dio Euskal Herriko industria sareak enbatari? Nola geratu dira gure herrietako lantegi enblematikoak? Erreportaje honetan, ibilbide eta akabera oso ezberdinak izan dituzten zazpi enpresaren eta haien langileen berri emango dugu.



Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

Astelehen beltzik izan bada euskal ekonomia historia hurbilean, hori 2013ko urriaren 21a izan zen: Fagor Etxetresna Elektrikoek ordainketak eten eta langabeziara bidali zituen 1.800 lagun. “Urteko albiste ekonomikorik txarrena” zela esan zuen Eusko Jaurlaritzak. Duela justu bi urte konkurtso-prozesu odoltsu batean murgilduta zegoen Arrasateko kooperatiba historikoa. Orain, CNA holding multinazionalaren esku dago, sozietate anonimo bihurtuta. Hari batetik zintzilik geratu dira hainbaten aurrezkiak eta “birkoka-tuak” izan ez direnen lanpostuak.

Fagor Etxetresna Elektrikoen kasua ez da ohikoa langabeziaren aurrean erresilientzia handia izan duen kooperatibagintzaren munduan; baina argi erakusten du krisialdiaren eskala norainokoa den. Azken zazpi urteetan, enpresa kapitalista konbentzional ugaritako lantegien ateak itxi dituzte euren nagu-

siek. Datu bat: Araban industria-enpleguaren %30 suntsitu da 2008tik ona.

Arabaren multinazionalen ihesa sekulakoa izan da, zenbaitetan diru publikoa poltsikoan dutela jaso dituzte polainak gainera –Daewoo Electronics-en kasuak erakusten duen bezala–. Baina beste toki batzuetan ere eragina izan du joera horrek: Sakanan adibidez, krisiaren hasieran Arfe, Isphording eta Gamesaren itxierak piko itzela ireki zuten. Gipuzkoan berriz, industria autoktonoa izan da kaltetuenetakoa, eta Bizkaian bereziki metalaren sektorea.

70eko hamarkadaren erditik hasitako krisi eta birmoldaketa industrialaren garaian, asko izan ziren kooperatibagintzaren bidea hartu zutenak. Urte horietan Euskal Herriko industria sektoreak enpleguaren %20 galdu zuen, bada Mondragon taldeko kooperatibetan goranzko bidean segi zuen lanak. 80ko ha-



Laminaciones Arreguiko langileak 2015eko urtarrilean egindako bilkuran. Auzitegietan kaleratzeen inguruko epaia irabazi ondoren, enpresaren jarrera “mendekaria” salatu dute behin baino gehiagotan.

ARGAZKI PRESS / RAUL BOGAJO

markadan lanpostuei eusteko SAL edo lan-elkarte bilakatu ziren sozietate anonimoen kopurua ere handia izan zen, eta langileak enpresaren jabe izatera igaro ziren figura juridiko horren bidez.

Gaurko testuinguruan, ekonomia sozialak –eta gero eta gehiago eralda-



tzaileak, solidarioak...- oihartzun are handiagoa duenean, enpresa esanguratsuotako langileek irtenbide horiei ekiteko bidea itxita aurkitu dute askotan, eta ekimen txikien aldean, ez dira hainbeste halako prozesuak abiatu dituzten tamaina ertain eta handiko enpresak.

Zergatik? Agian zerikusia izan dezake haien zorpetze mailak, atzerriko inbertitzaile edo kapitalarekiko menpekotasunak, edota inoiz izan den krisi konplexuenaren aurrean aurki gaitzkeela.

Nolanahi ere, langileek, modu batera edo bestera formula anitzetara jo dute:

batzuk enpresaren jabe egiten saiatu dira, beste batzuek auzitegietan heldu diote paparretik euren arazoari, baina denak aritu dira birrikak bota beharrean lanpostuen defentsan. Segidan, haietako batzuen atmosfera-presioa neurtu dugu.

Azkue (Azpeitia): lan-elkartea behetik gora

- **Aurretik:** Altzarigintzako sozietate-anomimoa, 200 langile zituen 2008an.
- **Ostean:** SAL edo lan-elkarte bihurtuta, 80-100 langile aurreikusten dituzte 2016rako.

Azpeitiko Urrestilla auzoan lekutua 70eko hamarkadatik, herri hartako enpresa historiko eta erreferentziala zen Azcue. Higiezin gorakadak kilikatuta inbertsio eta kontratazio handiak egin zituen 2000ko hamarkada hasierako oparoaldian. Baina 2008an burbuila lehertu zenean problemak izaten lehenengotakoa izan zen, fakturazioa %60 jaisteraino. Lantegiaren itxiera eta berrikeritza eredutzat dute askok, "behetik gora eginiko kudeaketaren adibide" zela esan zuen konkurtso-administratzaileak. Kaleratze gehienak adostutakoak izan dira, eta enpresa batzordeak beti izan zuen negozio ildoaren zati bat berriz martxan jartzea ortzimugan.

Bi urte, hiru lapurreta eta bi milioi euro geroago, Azkue –oraingoa "k" hizkiz-berriaren inaugurazio festa egin zuten ekainean lan-elkarteko bazkide-langileek; eurak dira enpresaren kapitalaren gehiengoaren nagusi. Urtea bukatu baino lehen 50 lagun ariko dira lanean parkeak eta altzariak egiten, eta hasierako defizitari aurre egitea dute erronka nagusi.

Troquenor (Sondika): krisiaren paganoak

- **Aurretik:** Troquelería del Norte SA, automobilgintza enpresa, 100 langile aritzen ziren.
- **Ostean:** Okupazio ekintza eta kanpaldi luzeen ondoren, itxita dago.

2013ko ekainaren 18an Troquenor lantegiaren hesi aurrean "Troquenor ez

itxi!" oihua inoiz baino ozenago entzun zen. Barruan, aldiz, "heriotza isiltasuna" omen zegoen. Egun hartan Ertzaintzak 120 behargin kaleratu zituen pabilioitik, makinaren desjabetzea eragozteko birritan itxialdiak egin ondoren: "Gu gara egoera honetako paganoak, tokirik okerreanean gaude" zioen langileetako batek ernegatuta. Hurrengo egunean berriz itzuli ziren, ateak zarratuta aurkitu arren.

Historia luze baten azkenaurreko kapitulua izan zen hura. Troquenorreko estanpagailua 2012ko abenduan gelditu zen betiko, hainbat urtetan Enplegua Erregulatzeko Espedienteak jasan ondoren. Jabeak milioika euroko zorrak zituen –zati handi bat erakunde publikoei zor zien eta beste bat langileei, likidazio fasean soldatarik ez zuelako ordaindu-. Lan-elkartea sortzeko aukera ere aztertu zuten, baina alferrik. Azkenean, Bilboko epaile batek kaleratzeak baimendu zituen, lan erreformak ekarritako gutxieneko kalte-ordainak ezarrita gainera.

Koxka (Iruñea): lehiakide zailak

- **Aurretik:** Atzerriko inbertsio funts baten esku zegoen eta 250 langile zituen.
- **Ostean:** Langileak jabetza eskuratzeko saiatu dira, baina azkenean inbertitzaile talde batek erosi du. 2015 amaierarako 100 lagun aritzea espero dute.

Izozkailuak egiten dituen Koxka enpresaren adibideak erakusten du zenbaitetan norbere lanaren jabe izatea ez dagoela soilik borondatearen esku, batez ere *txin-txin* hotsa entzuten denean.

Krisiaren hastapenetan Iruñeko Landabengo poligonoan eta Azkoienen –Kobol izenarekin– zituen lantegietako ia 300 lagun kaleratzeko espedienteak

abiatu zuen orduko zuzendaritzak –ELAK, ESK-k eta LABek jazarpen sindikala salatu zuten-. Epaitegiak atzera bota zuen erabakia, baina ordurako AEBetako arrisku kapital baten menpe zegoen bere etorkizuna. Honek, katar-marrua gizendu ostean, zorretan itota utzi zuen enpresa –multinazionalaren ordezkariak lantegiko atzeko atetik ihes egin behar izan zuten, literalki, beharginak inguratuta zeudela ikustean–.

Gero, negozioa berriz martxan jartzeko hautagaiak aurkezteko ordua iritsi zen, eta langileek pausu bat aurrera egin zuten: SAL edo lan-elkartea sortzeko prozesua abiatu zuten 108 kidek. Haien irudikoz enpresa bideragarria baita eta horretarako plana ere egin zuten. Lehiakide gogorrak izan dituzte parean baina: zuzendari-ohi eta eskuarte handiko inbertitzaileez osaturiko taldea. Epaileak bi aukeren arteko "alde ekonomikoari" erreparatu dio eta urriaren erditik Grupo K Refrigeración enpresarentzat produzitzen hasi dira 50 langile inguru.

Laminaciones Arregui (Gasteiz): auzitegieta zeharkaldia

- **Aurretik:** Celsa Atlantic enpresak 352 lagun kaleratu zituen 2012an.
- **Ostean:** Bi urteko auzibidea eta gero erabakia bertan behera utzi zuen epaileak. Egun, langileek kaleratze mehatxuekin jarraitzen dute.

"Laminaciones Arreguikoen (Celsa Atlantic) borroak erakusten du, konbentzimenduz eta zintotasunez langileen eskubideen defentsan jarduteak merezi duela". ELA sindikatua harrotasunez mintzo da altzairugintzako Gasteizko lantegian bizi izandakoaz. Lehenagotik makina bat mobilizazio eginak bazeu-



TALLERES MITXELENA S.COOP.




Talleres Mitxelena, S.Coop.
Eziago Poligonoa • Zikunaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

www.talleresmitxelena.com

den ere, 2012an 91 lagun kaleratu zituztenean hasi zen egiazko ezpata-dantza. Greba eta negoziazioen erdian enpresak enbidoa bota zuen: edo baldintzak onartu edo 356 lankideak kalera. Lantaldea zatitzen ere saiatu zen, asanblada ilegalak konbokatuz. 2012ko uztailaren 9a gorriz markatuta izango dute askok. Egun hartan “eskirol” hitzaren esanahi osoa ezagutu zuen hainbatek lantegi atarian arrautza gorringo artean.

Asko izan dira euren egoera salatzeko langileek abiatutako ekimenak, bada Bartzelonarainoko bidea oinez egin zuenik ere, Celsa Atlantic talde katalanaren nagusiekin hitz egiteko. Baina bide luzeena eta emankorrena auzitegietakoa izan da. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak eta Espainiako Auzitegi Gorenak bata bestearen atzetik bota dituzte atzera enpresaren erabakiak eta errekursoak. Urriaren amaieran, bi urte eta erdiko zeharkaldiaren ostean, Laminaciones Arreguiko beharginak Betoño poligonoko eta Urbinako pabiloietara bueltatu dira lanera, pozik, baina etor daitekeenaren aurrean adi.

Inasa (Irurtzun): hutsune erraldoia

- **Aurretik:** Baikap arrisku-kapital enpresak erosi zuen 2010ean eta aluminio lantegiaren desegite prozesua abiatu zuen.
- **Ostean:** Langileek herri harresiarekin babestu zuten makinaria. Gaur egun itxita dago.

Plastiko eta egurrez egindako txabolatxo batean, hotzari salda beroa hartuz egiten diote aurre Inasako langileek lantegiaren atarian. 2013ko maiatzean gaude, greba eguna. Astebete lehenago “herri harresien” aldaera laborala praktikatu zuten langile eta herritar ugarik, makinak eraman ez zitzaizten, baita lortu ere.



ARGAZKI PRESS / JON HERNAEZ



ARGAZKI PRESS / IÑIGO URIZ

Goian, ertzainak Troquenorreko langileak geldiarazten 2013an egindako desjabetzeaz. Behean, Koxkako langileen buzoak lantegiko hesian, kaleratuak izan direnak “zintzilik” geratu direla salatzeko.

ELAY Taldea Lizarragako Hiribidea, z/g · 20577 Antzuola (Gipuzkoa) · Tel.: 943 766 100 · Faxa: 943 766 262 · www.elay.eus



ARGAZKI PRESS / IDOIA ZABALETA



ARGAZKI PRESS / JUAN CARLOS RUIZ

Ezker-eskuin: Inasako langileak lantegi barrura sartzen multinazional batek bertatik makinak eramatea eragozteko, 2013ko abuztuan. Zestoako plazan TS Fundicioneseko langileek egindako bilkura 2014ko maiatzean; herritarren babesa sarritan eskertu dute lanpostua kinkan ikusi duten beharginek.

2010ean Baikap arrisku kapital enpre-sak bereganatu zuenetik, Inasa pixka-naka desgaiteko prozesua abiatu zuen: soldata jaitsierak lehenik, Rajoyren lan erreforma aplikatzea ondoren, 155 la-gunentzako behin betiko enplegua erregulatzeko espedientea... Azkene-koa izan zen makinak internet bidez enkantean jartzea. Langileen aburuz baina, lantegia berriz martxan jartzeko inbertitzaileak bazeuden: “denbora da eskatzen duguna”, zioten behin eta ber-ri. Baina 2013ko abuztuko egun erre-batean, urruneko multinazional batek bidalitako hiru trailer sartu ziren pabi-lioian Guardia Zibilaren laguntzaz, eta makinak zeuden tokian hutsune erral-doia baino ez zuten utzi.

Muebles Salcedo (Viana): kooperatiba salbazio

- **Aurretik:** Altzarigintza enpresak ateak itxi eta 132 lagun kalean utziko zituela iragarri zuen.
- **Ostean:** Langileek kooperatiba sortu dute eta martxan da 50 laguneko bazkide taldearekin.

60ko hamarkada amaieran, Errioxako Torrecilla de Cameros herritik Nafarroako Vianarako bidea hartu zuten 144 familiak, Muebles Salcedok lekualdake-ta derrigortuta. Ia mende erdi geroago, haien ondorengo asko enpresaren jabe dira.

2008tik 2012ra bitartean Muebles Salcedok fakturazioa 22 milioitik 3,8 milioira jaitsi zuen. Enpresak kiebra jo zuenean, 49 langilek hartzekodunen konkurtsoan lehiatu eta kooperatiba

osatzea erabaki zuten. Ez zen batere erraza izan: nor bere poltsikotik dirua jarri behar izan zuen –langabezia-saria kapitalizatuz–, soldata %20 murriztu eta kobratu gabekoei uko egin zieten, hipotekak eskatu zituzten, kalefakzioa erabili beharrean neoprenozko jakak erabiltzen hasi ziren... Muebles Viana SCCL izatera igaro den enpresa aurrera eramateko, funtsezkoa izan da Nafarroako Gizarte Ekonomien Enpresen laguntza, baita Oinarri finantza era-kundearen 700.000 euroko bermea ere.

TS Fundiciones (Zestoa): elkartasunaren giltza

- **Aurretik:** Birmoldaketa plan gogorra abiatu eta likidazio fasean geratu zenean, protesta eta itxialdiak bizkortu ziren.
- **Ostean:** Gonvarri taldeak erosi du, lan-gile-ohiak berriz hartzeko konpromisoak adostuta.

TS Fundiciones-eko langileen pazien-tzia 2014ko apirilaren 29an amaitu zen: “Atzetik puskatu beharko diagu atea... Sartu barrura ahal den bezala”, zioten urduri esterilak eskuan zituztela. Bi eguneko itxialdiarekin lortu zuten or-dura arteko borrokaren tonua igo eta Eusko Jaurlaritzaren arreta nolabait be-reganatzea.

Zestoako Arroan dagoen Sansinenea poligonoan bi urte lehenago hasi zen TSkoen gurutze-bidea, administrazio kontseilua aldatu zenean. 2014ko ha-sieran enpresa likidatu eta 156 langile

kalean geratuko zirela iragarri zuen zu-zendaritzak. Zestoako eta eskualdeko herritarren elkartasunaz, mobilizatzeko gaitasun eta indar handia erakutsi dute TSko langileek. Horren isla dira pabi-lioian entzerratu zirenean kanpoaldean bildu zen herritar multzo handia, edota epaitegian enpresa ez itxeko eskatuz aurkeztutako 4.000 sinadurak. 2015eko maiatzean Gonvarri taldearen Iraeta Wind filialak irabazi zuen hartzekodu-nen lehiaketa eta planta berriz martxan jartzeko 5 milioi eurotik gora inberti-tzeko konpromisoa hartu zuen. Albiste horrek itxaropena ekarri du Urolara, Azpeitiko Corrugadosen itxiera trau-matikoa oraindik ere oso gogoan baitu askok.

“... arnasa estutzen den momentuan / hartzen da lasai arnasa” zihoen bertso-lariak TS Fundiciones-en irekiera ospa-tzeko Zestoako plazan antolatutako eki-taldian. Baina langileek “oinak lurrean” dituztela ere garbi geratu zen: “Jarrai-tzen dugu ziurgabetasun berarekin, ba-dugu inbertitzaile bat, baina bide luzea dugu egiteko, bide zailena, irekiera fase honetan ez baikara denak sartuko. Fa-milia askorentzat drama bat izango da, langabezia bukatzen ari zaigulako”, dio ia 20 urtez TSn lanean jardundako Mi-guel Romerok. TSko langileen Faceboo-keko orrialdean, 2015eko urrian ida-tzitako azken-ohar lakoniko bat irakur daiteke: “Gutako askori paroa oraintxe amaituko zaigu. Ikaragarria, baina hori da errealitatea. Pentsatu behar dugu subsidioa eskatzea...”. ■



HERIOTZA SAIHESTU
Segurtasun gerrikoa beti lotuta

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Baskismoa eta ezkerra

Nafarroako Erriberan



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIAK: ANDONI ZULET

Milagros Rubio (Tutera, 1952) eta Josemari Esparza (Tafalla, 1951) Nafarroako ezkerren bi erreferente ezagun dira. *Ager Vasconumeko* borroketan sarri elkarren ondoan ibilitakoak. Eta urrunduak ere bai. Aldaketak gerturatu ditu orain, sikiera elkarriketa honetara. Batzarrekoa da Rubio eta zinegotzia izan da Tuteran 1979tik 2015era arte; Esparza editorea da, haien sorreratik Txalaparta argitaletxeari eta Altaffaylla Kultur Taldeari lotua.



Joxemari, iaz Erriberari buruzko bi artikulua esanguratsu idatzi zenituen. Horietako batek honako titulua zuen: “¿Zer egingo dugu gure *Ager Vasconum*arekin?”. Galdera zuentzat da orain.

JOSEMARI ESPARZA. Historian zehar, bat datoz euskal kutsua Erriberatik urruntzea eta eskuinaren garaipena. Errepublikanismo federala, Gamazadaren leherketa, Euskal Estatutua, Fronte Popularra, frankismoaren aurkako borroka, edota nuklearraren aurkako mugimendua errealitate politiko handiago baten parte izatearen ikuspegitik egin ziren: Eusko-nafar Herria, Euskaria, Euskal Herria.

Beraz, zer egin? Erribera den bezalakoa onartu eta toki eroso bat utzi

buruan dugun Euskal Herri horretan, bere tradizio eta nafartasunarekin. Eta herrialdearen gainerako lurraldeetatik horretan lagundu behar zaio. Entzun dadila bere erromantzea gure foro politikoetan, Donostian edo Iruñean inork esan gabe haiek paretetan zer jarri behar duten. Apaltasunez pentsatu beharko genuke baskismoa haien neurrira egokitua luketen herritarren hautagaitza zabaletara itzultzea herri haue-tan, 1979an bezala.

MILAGROS RUBIO. Abiapuntu oso desberdina dut. Den bezala onartu behar dugu Erribera. Historiako pasarteak oso interesgarriak dira, baina gaur egunean gaude eta garen bezalakoa gara. Hainbat identitate ditugu Erriberan: bat, sakonki nafarra dena, eta horretatik, batzuek badugu bigarren identitate partekatu bat, baskista edo abertzalea izan daitekeena; eta beste batzuk, gehien-goak, espainiarra.

Hori onartzen ez bada, baskismoa geldotu egiten da, atzera egiten du edo marjinatua gelditzen da. Gaur egun Izquierda-Ezkerrak alkatetza du Tuteran, PSN eta Tudela Pudedekin. Zergatik? Ezkerreko herritarrek erreferente sozial gisa ikusten gaituztelako, baina baita identitateen arteko erdigunea bilatzen ahalegindu garelako ere. Nik beti hartu dut zinegotzi kargua gaztelaniaz eta euskaraz, eta txistu ugari entzun dut horregatik, baina abertzaletasunari ere ez zitzaion nahikoa iruditzen.

» **J.M. ESPARZA:**

“Abertzaletasunaren akatsik handiena zentralismoa izan da, lehenik Bizkaikoa, gero Gipuzkoakoa eta gaur egun Iruñekoa”

» **MILAGROS RUBIO:**

“Abertzaletasunetik ez da jakin izan hemen diren identitate desberdinak errespetatzen”

Milagros, zuk nola bereizten dituzu baskismoa eta abertzaletasuna?

M.R. Euskal kultura eta euskararekiko partaidetza sentipen bat da baskismoa, hemen hauek izan ez duten onarpena eta ezagutza bultzatzen duena. Abertzaletasuna harago doa eta gainerako euskal lurraldeekiko batasuna aldarrikatzen du, independentzia... Abertzaletasunak euskal nazionalista izatea esan nahi du, eta ni ez naiz nazionalista. Identitate nagusia nafarra da Erriberan, eta euskal kulturak hori onartu behar du eta ondoren, ahal duen erritmoan aurrera egin, baina beti han dagoen errealtatetik abiatuta, azkarregi abiatu gabe.

J.E. Baina zertarako gaude ezkertiarak, iraultzaileak? Errealitateak aldatzeko. Ezin dugu ahaztu Erribera guztiz kolonizatua izan dela, Fronte Popularrak irabazi izan balu seguruenik Autonomia Estatutu berarekin geundeke Hegoaldeko lau lurraldeak. Bai, Erribera den bezalakoa da, baina nik aldatzea nahi dut.

M.R. Identitate kontuetan nik ez dut Erribera aldatu nahi, nik nire ekarpen-txoa egin dezaket euskal kulturak ere bere tokia izan dezan hemen. Baina ez dezagun eman inork eraso gisa senti dezakeen urratsik, bestela gure gainera lurra botatzen arituko gara eta. Abertzaletasuna oso erradikal aritu da independentzia, *jo ta ke* eta ETaren jarduera armatuarekin, eta hori giltzarri izan da azken 20 urteetan UPN gobernuan mantentzeko.

J.E. Bere nortasunetik abiatuta, jakina, baina konkistaren garaitik hasi eta 1936ko Fronte Popularreraino, Erriberan eta bere herrietan identitate kontuak eta foralismoa jorratu direnean, Vasconiarekin lotuta izan da. Horregatik, nabarrismo espainiarra da Nafarroako foruen eta bere ohituren defendatzaile eskasena. Nabarrismo horrek ez du iraganik Nafarroan, bertako intelektual eta idazle esanguratsuenek –baita Erriberan ere– beti onartu izan dutelako gainerako euskal lurraldeekin zuten lotura: Euskal Herri barruan edo ondoan. Interes politikoengatik erori da hori guztia, errepresioagatik, komunikabideen kontrolarekin, euskal usaina zuen guztiaren jazarpenarekin.

Eta zer egin daiteke egoera hori aldatzeko?

J. E. Kultura orokorra egin behar da, herrialde kultura eta kultura politikoa.





» **MILAGROS RUBIO:**
 “Nafarroako
 Gobernuan diren ezker
 nazionalista eta ezker ez
 nazionalistaren arteko
 aliantza sendotzea
 garrantzitsua da”

» **J.M. ESPARZA:**
 “ETA ezin da ulertu
 frankismoa eta haren
 errepresiorik gabe”



Eta ez bakarrik iragana berreskuratzeko, Herrialdearen gainerako lurraldeekin etorkizun hobea eta progresistagoa izango dugulako baizik.

M.R. Iragana hor dago, baina errealtatea gaur egun bizi dena da. Akatsik nabarmenenak azken hamarkadetan egin dira eta abertzaletasunetik etorri dira, ez da jakin izan hemen diren identitate desberdinak errespetatzen. Horrez gain, hor da ETAre jarduna. Eta horrek guztiak, baskista ez zen jende asko baskismoaren aurkako bihurtu du. Kontrakotasun hori gainditzen hasi behar dugu, eta haien identitatearen errespetutik bakarrik irabaziko dugu haien begirunea.

Nola eragin du hitz egiten ari garen guztian ETAre jardunak?

M.R. ETA, Euskadi, euskara, independentzia eta gisakoak dena bat balira bezala saldu ditu UPNk hemen, eta horretan ETAk asko lagundu dio. ETAk eragindako 800 hildako horiek PSNtik haragoko ezkerren arteko elkarlana nabarmen eragotzi dute eta horrek eragin handia izan du baskismoaren garapenean. Hala ere, nahiz eta hemen ez garen hori jorratzen ari, argi utzi nahi dut ETArekiko dudan arbuiorik handiena etikoa dela.

J.E. Abertzaletasunaren akatsik handiena zentralismoa izan da, lehenik Biz-



» **MILAGROS RUBIO:**

“Azken urte luzeetan
ETak berarekiko
desberdina zena hil du”

» **J.M. ESPARZA:**

“Gutxienez 15 urte
behar dira nabarrismo
eskuindarrak Nafarroan
utzi duen zikin geruza
kentzeko”

kaikoa, gero Gipuzkoakoa eta gaur egun Iruñekoa. Abertzaletasunari –EAtik eta Geroa Baitik hasi eta Sorturaino – urruti geratzen zaio *Ager Vasconuma*. Erriberarik ez da zuzendaritza politikoa eta liberatuentzat, hauteskundeetan hurbildu eta botoa eskatzeko ez bada. Hori guztia aldatzen ez bada, ezkerrek, abertzaleek eta Nafarroako etorkizunak arazo asko izango dute etorkizunean.

ETak bere erantzukizuna izango du, baina, azaldutakoagatik, EAJk eta ezker abertzaleak lurralde hau ulertzeko izan duten moldeak askoz eragin handiagoa du. Horrez gain, argitu behar da guztiok ez dugula Milagros Rubiok gaiak hitz egiteko duen askatasuna. Nik ez dut, Damoklesen ezpata gainean dut. Duela gutxi urtebeteko espetxe zigorra jarri diote pertsona bati Carrero Blanco kritikatzekoagatik.

M.R. Bere 800 hildakorekin, hemen urte luzeetan ETA izan da Damoklesen ezpata...

J.E. ...800 hildako? Hizkuntza hori espainiar inteligentzia zerbitzuetatik atera da. Batetik, horiek hainbat erakunderen artean banatu behar dira eta gainera, gaur egun demokrata gisa bulego eta aginte postuetan dauden pertsona askok dituzte erantzukizunak horietan. ETA ezin da ulertu frankismoa eta haren errepresiorik gabe.

M.R. Nahi duzun akats guztiekin, baina

demokrazia batean gaude. Azken urte luzeetan ETak berarekiko desberdina zena hil du. Hemen, nire alboan izan ditut mehatxatuak zinegotzi sozialistak, eta haien delitu bakarra udalera tuteraren alde lan egitera etortzea zen...

J.E. ...Kontatuko al dizut nik nire inguruan ikusi dudak sufimenduaz, torturatuaz...? Hau ezkerren gai klasikoa da. Biolentziaren gaia hala laburbiltzen da, askatasuna bilatu izan duen lehen pertsonatik hasita: kontua ez da biolentzia bai ala ez, noiz politikoa eta nola etikoa baino. Chomskyk zioen zapalduen biolentziari terrorismoa deitzen zaiola eta zapaltzaileenari gerra.

Eta 2015eko nafar udaberria heldu zen. Zer gertatu da?

J.E. Hainbat faktore dira: erregimen zaharrekiko asperraldia, ETaren ondorengo garaia eta herritarren batasunen sorrera. Azken hauek batzuetan EH Bilduren inguruan egituratzen dira, besteetan herritarren hautagaitzen inguruan eta bakarren batean Ezker Batua-Batzararren inguruan. Herritarren hautagaitzak bide ona dira etorkizunera begira.

M.R. Funtsean ados nago. Azpimarratu nahiko nuke, dena den, Erriberak gainerako Nafarroarekiko beste kolore bat izan duela emaitzetan. Nahastu ez gaitzen diot, homogeneizatu ez dezagun eta hemen ere udaberri hori Nafarroa osoan bezala izan dela pentsa ez dezagun. Hemen PSNren ezkerrearen diren posizio ez abertzaleak finkatu dira batez ere.

Aldaketan sakondu eta egungo gobernuak irauteko klabeak non dira?

M.R. Nafarroako Gobernuak egiazki barneratu behar du –Uxue Barkosek esan zuen hitzez– baskismoa ez dela gehiengoa Nafarroan eta, beraz, baskista eta baskista ez direnentzat gobernatu behar du. Eta hau ez da oso garbi ikusten ari.

Zertan oinarritzen zara hori esateko?

M.R. Hartu ditugun lehen neurriek izaera baskista dutelako. Legebiltzarrean egingo den lehen bilkura monografikoa erabaki eskubideaz eztabaidatzeko bada... Keinuak oso garrantzitsuak dira. Azken egunotan, hala ere, neurri sozialak ere ari dira hartzen, adibidez, aborturako eskubidea sare publikoan

bideratzea. Gobernuak ongi orekatu beharko ditu identitateen arteko zaintza eta esparru sozialaren garapena.

J.E. Nik esamolde klasikoa erabiliko nuke: oraindik aldatu ezin denaren aurrean, pazientzia; alda daitekeena aldatzeko, ausardia; eta aurreko bien artean bereizten asmatzeko, jakinduria. Eskertzekoa da EH Bildu erakusten ari den jarrera, ez dago gobernuan eta hauteskundeetako bere indarrari begiratzen badiogu, bera da kaltetuena alde horretatik. Hala ere, egin ahalak egin behar ditugu gobernu honi edo antzeko bati beste hamabost urtez eusteko, gutxienez denbora hori beharko baita nabarrismo eskuindarrak Nafarroan utzi duen zikin geruza kentzeko. Adostasun asko ditugu, programa sendoa eta alternatiba badakigu zein den.

M.R. Gobernuaren ezker nazionalista eta ezker ez nazionalistaren arteko aliantza sendotzea garrantzitsua da. Horretarako lidergo partekatua behar ditugu –ados nago, Geroa Baik kargu gehiegi hartu du– eta mugimendu sozial eta sindikalek norabide berean bultzatzea. Azken hau gaur egun ez da ematen, eta horretan ahulak gara. Horrez gain, uste dut ezker abertzaleak sakondu beharko lukeela ETArekiko iraganeko ikuspegi autokritikoan.

J.E. Kezkagarria da Gobernu barnean Uxue Barkos erakusten ari den autoritarismo maila bat eta irudia bereganatzeko ahalegina, lidergo partekatuagoa beharko litzateke. Eta autokritikari buruz zera diot: batzuek erabiltzen duten aitzakia besterik ez da. Xantaia politikoa, sasi demokrazia honetan. Egun batean, askatasunez, mintzatu ahal izango gara ETaz eta bestelakoez. Eta nork berea emango du. ■

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

ESKU IKUSEZINOTAN BALEGO ETORKIZUNeko NEKAZARITZA?

Emakume laborarien lana ez da ikusten. Bere ekarpen ekonomikoa ez da inon kontatzen: asko eta asko ez dira ageri ez Gizarte Segurantzaren, eta ez dira ekoizpenen titular. Emakume Baserritarren Estatutuak egoera hori orekatzen asmatuko ote du? Gizarte matxistaren ondorio den ikusezintasun honez gain, Europatik bultzatu den nekazaritza ereduak ere emakumeak nekazaritza bota ditu. Aldiz, ertz-ertzekoak diren emakume baserritarrek argi dute nekazaritzaren etorkizuna eurek landu izan duten ereduak duela.



Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre

Emakume laborarien lanak ez du ikusgarritasunik. Euren egungo egoera ongi islatzen dute Isabel de Gonzalo Aranoak eta Leticia Urretabizkaia Gilek *Las mujeres baserritarras: análisis y perspectivas de futuro desde la Soberanía Alimentaria* (Emakume baserritarrak: analisia eta etorkizun ikuspegiak Elikadura Burujabetzatik) liburuan. Sexuaren arabera lan banaketak ekarri du familia ekoizpenean bereizi egin direla lan produktibo eta erreproduktiboak, eta bakoitzaren errekonozimendu sozioekonomikoa ezberdina izan da. Baserriko bizimoduari eusteko beharrezkoak diren zaintza lan gogorrek badira, eta gainera, lotura zuzena dute aktibitate produktiboarekin. Hirietan bezala baserrietan ere, lan hauek ez dira “lan”: Espainiako Estatistika Institutuak (INE) dio etxeko lanak ez direla nekazaritza lanen barruan kontuan hartuko.

Baina horrez gain, emakumeek baserrietan egiten duten lan produktiboa ere ezkutatu dago: askok ez dute Gizarte Segurantzaren kotizatzen, eta emakumeek egin izan dituzten lan produktiboak ez dira nekazaritza jardura gisa hartu izan (ez INEren estatistiketan, ez legeetan), nahiz eta etxeko ekonomian pisua baduten: esaterako, eraldatutako produktuak ekoiztea (txerrikiak, gazta...) edo zuzeneko salmentan aritzea.

Gainera, ekoizpena gizonaren izenean egon ohi da gehienetan. EAEko landa eremuan egindako azken erroldaren arabera, ustiatuek %68 gizonen izenean dago, eta %32 baino ez emakumeen izenean. Ekoizpenaren titularitatek ez izateak desorekak sortzen ditu etxe barruan, esaterako, jardueraren gestioan erabakiak hartzerako orduan.

Aitortza legal, ekonomiko eta sozialik ez izateak dakar euren langile izaera ez ezagutua izatea. Emakume baserritarren lana ez da lan profesionaltzat hartzen, “etxerako laguntza” gisa baizik.

Zergatik ez dira ageri Gizarte Segurantzaren?

Industrializazioak baserrietatik hirietera eraman zuen populazioa, eta nekazaritza ustiatuek langilez hustu zituen. Nekazaritza industrialak, aldi berean, emakumeak ustiatuek atera ditu. Arantza Arrienek kontatu digu bilakaera, Ozetan (Araba) sagar zukua auzolanean botilaratzen duten bitartean: “Gizarte Segurantzaren izena emanda askoz baserritar gutxiago gara egun, eta horien artean emakumeak %30 inguru gara (nahiz eta esaten den azken urteetan emakumeok pixkatxo bat gora egin dugula). Mekanizazio handia eman den tokietan, adibidez, Arabako lautadan, mekanizazioak emakumea jardura ho-

rretatik kanpo utzi du”. Zergatik ez diren ageri Gizarte Segurantzaren? “Nekazaritzaren etekinak ez dira handiak, eta batzuetan sakrifikatu egiten da etxeko baten Gizarte Segurantzaren; eta emakumearena izaten da. Zerikusi handia du errentagarritasunarekin eta beste zatitxo batean, gizarte matxistarekin: nahiago izaten da traktore bat erostea, etxekoa Gizarte Segurantzaren egotea baino”.

Emakume Baserritarren Estatutua

Eusko Jaurlaritzak onartu berri duen Emakume Baserritarren Estatutuak, eskubideetan ezberdintasunak sortzen dituen ikusezintasun egoera honi egin beharko dio aurre. Horretarako, emakume nekazariak Gizarte Segurantzaren kotizatzea bultzatzeko laguntzak eskainiko ditu. Bestetik, emakumeak ustiatuek titular bezala agertzea –euren kabuz, edo modu partekatuan– bultzatuko du: emakumeen titulartasuna duten baserri eta nekazaritza enpresek puntu gehiago jasoko dituzte lehiaketa publikoetan edo diru-laguntzetan.

Lege honen arabera, gutxienez urteko errentaren erdia nekazaritza jardueratik lortzen duten emakumeak ustiatuek jabetzan parte izango dira. Baina zein dira –eta zein ez– “nekazaritza jarduerak”? Alazne Intxauspek azaldu digu



Emakumeen Mundu Martxak balio izan die dinamika azkartzeko. Argazkian, Mundu Martxako Bilboko mobilizazioan: erdian, pankartari helduta irribarrean, Alazne Intxauspe.

ETXALDE

gakoa: Intxauspe laboraria da, lurretako (Bizkaia) baratzeetan landutako fruituak otzaretan saltzen ditu. Nekazaritza iraunkorra bultzatzen duen Etxalde mugimenduko emakumeen taldeko kidea da. Adierazi du euren eskaria izan zela estatutu honetan nekazaritza lan gisa kontuan hartu daitezela baita ere nekazaritza produktuak eraldatzea eta merkaturatzea. Eta pozik dira, estatutuan ikuspegi hori txertatzea lortu dutelako: “Izan ere, bestela oso zaila da emakumeen lanaldia lurrari soilik lotua izatea, horrek hektarea askoko jarduera intentsiboa eskatzen du”.

Intxauspek positibo baloratu du baita ere estatutuaren arabera, nekazaritzarekin zerikusia duten erakundeetan, lau urte barrurako ordezkartzaren %40 emakumea izan beharra –bestela ezingo dute diru-laguntzarik jaso–.

Noraino lortuko duen estatutuak egoeran eraginik izatea? Zuhur ageri da Intxauspe: “Ezagutzen ditugun beste esperientzia batzuek zalantzan jartzen dute antzerako estatutuen eraginkortasuna. Guretzat estatutua erreminta bat da; lege hau hobetu daiteke, noski, eta hobetzera joango gara, baina eskatzen duguna da behintzat dagoen hau baliabidez hornitzea, aurrekontu bat jartzea eta indarra ematea”.

EUROPAKO DIRU-LAGUNTZAK (PAC)

- Diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsonen **%32 dira emakumeak** eta %68 dira gizonezkoak.
- Emakumeek **diru-laguntza poltsaren %23** jasotzen dute. Batez beste, gizonak 4.814,92 euro jasotzen dituzte eta emakumeek 3.100,27 euro.
- Emakume baserritarren %45,28k **1.000 eurotik beherako** laguntza jasotzen du. Eta **1.000-5.000 euro artean** emakumeen %33,04k. **20.000 eurotik gorako** laguntza jasotzen dutenak, emakumeen %2 dira.

TITULARTASUNA

Ekoizpenen %29an emakumeak dira titularrak eta %71 gizonak. Emakumeak titulartasunean nagusi dira, ekoizpen hauek ez direnean etxeko diru-iturri nagusia. Ekoizpenaren dimentsio ekonomikoa handitzen den heinean, gutxitu egiten da emakumeen parte-hartzea bai gestioan eta baita erabakietan ere. Autokontsumora bideratutako lurak gehienbat emakumeek kudeatzen dituzte.

ITURRIA: LAS MUJERES BASERRITARRAS: ANÁLISIS Y PERSPECTIVAS DE FUTURO DESDE LA SOBERANÍA ALIMENTARIA.

» Mekanizazioak emakumea laborantzatik kanporatu du. Emakumeek landu duten nekazaritza txikia eta anitza da

Etorkizuneko nekazaritza eta feminismoa

Europako diru-laguntzek (ikus aurreko orriko koadroa) bultzatzen duten nekazaritza eredu industrial "ez da emakumea eta ez da gizartearentzako ona", adierazi digu Arrienek: "Emakumeak ez gaitu erakartzen nekazaritza horrek; diru handiak eskatzen dituen, inbertsio handiak... Gurea gehiago da inbertsio txikiak egitea, ikusten joatea, aldatzea, partekatzea...". Datuek erakusten dute zenbat eta ustiategi handiagoak izan lur eremutan, emakume gutxiago direla bertako titular. Arrienen hitzetan: "Emakumeak titular diren ustiategiak askoz (baina askoz, e!) txikiagoak dira lur eremutan, eta askoz dibertsifikatuagoak dira. Gizonak ari diren jarduerak askoz espezializatuagoak dira. Emakumeen ustiategietan, normalean, badira loreak, bada baratzea, baratzeako produktuen eraldaketa, oilo apur batzuk, lehortzen dira sendabelar batzuk... Nekazaritzak bereak dituen askoz eremu gehiago hartzen dute. Eta emakumeen ustiategietan gizonenetan baino askoz gehiagotan zuzena da salmenta Beraz, herritarren gehiengoarentzako ona den nekazaritza ereduak antz handiagoa dauka emakumeen ustiategiekin, gizonen ustiategiekin baino". Filosofia tira, eta errentagarritasuna? bestela ezin dela irau, hori izan ohi da ustiategi handien argudio: "Handi zein txiki, irabazi garbi denok *antzekoparezido* egiten dugu" erantzun du Arrienek. "Batzuek diru gehiago ikusi bai, ikusten dute mugitzen, baina ez dira errentagarriagoak".

Intxauspek ere argi du: "Elikadura burujabetza ezin da ulertu feminismoarekin gabe. Nekazaritzak emakume aurpegia du. Gure baserri eredua emakumearen eredua da. Nekazaritzak iraungo badu, eredu erabat aldatu beharra daukagu.



ETXALDE: EMAKUME LABORARIAK, ANTOLATUTA

Etalde nekazaritza iraunkorraren aldeko mugimenduaren baitan, emakume laborarien dinamika indarra hartzen ari dela kontatu digu Intxauspek: "Euskal Herri osoko 70 emakume baserritar gaude sare honetan, eta normalean elkartzen garenak 10-15 gara". Mugimendu guztiek dituzte garai biziagoak eta iraupenezkoak, eta aurtun Emakumeen Mundu Martxak dinamika azkartzen lagundu dielako esker oneko dago: "Aurtengo Emakumeen Mundu Martxako ikurretako bat haziak izan direnez eta elikadura burujabetza landu dutenez, ikusi dugu bete-betean guri ere bazegokigula parte hartzea. Hazien bilketan parte hartu dugu eta Bilboko jaian bizitzaren jasangarritasunari buruzko gure ikuspegia aurkeztu dugu". Eguneroko jardunean feminismoa euren gogoetara ekartzen eta baserriko emakumeen artean ezagutza ematen saiatzen dira, "denetarik emakumeak baikaude baserritarren artean". Emakumeen Mundu Martxan martxa hartuta, urte osoko plangintza osatzera jarri dira: "Bi lan ildo zehaztu ditugu: batetik, gure taldea indartzeko ekintzak. Horren baitan, oso garrantzitsutzat dugu formazioa. Abenduan ziberaktibismo ikastaroa egingo dugu, internet eraginkorrago erabiltzen ikasteko, bideo motzak egiten trebatzeko... Bigarren ildo sentsibilizazioa da, taldez kanpoko emakumei zuzendua. Horretarako, Kubako *Campesina a campesina* formazio eredua hartu dugu oinarri: Akademiko bat ekarri beharrean bere teoriak kontatu ditzan, beste baserri batera joaten gara han nola lan egiten duten ikustera eta elkarrengandik ikastera".

Eredu intentsiboa, hektarea askokoa, monolaborantza, ongarri eta pestizida kimikoak behar dituen, gastu pila dituen... Nekazaritza horrek dakarren bakarra da nekazaria langile prekario bihurtzea. Erdian dagoen industriak kontrolatzen du dena, kapitalak". Etorkizuneko nekazaritza iraunkorra dela baieztatuta, bere oinarriak laburbildu

ditu Intxauspek: "Baserriak ezaugarritzat izan duen autonomia berreskuratu behar dugu. Hori izan da emakumeak egin duena historian. Eredu hori soilik da iraun dezakeena. Autonomoa dena, kasik ez duena kanpoko *inputik* behar, ez hazirik erosterik eta abar. Dibertsifikatua dena eta zikloa baserrian bertan ixten duena". ■

BIDEHUTS

durangoko azoka 2015 • Artekale 54

n o b e d a d e a k

BIDEHUTS



Anari

"Zure aurrekari penalak"
CD/LP

NIRE HAMABOST




Nire

"Hamabost"
LP+CD/CD



Jupiter Jon

"Eta metaforak greba egin zebe..."
CD/LP



Ekiza

"bH036"
CD/LP

Txikiak murgiltze ereduan, helduak “nasategian”

Nasa herrian, nasa yuwe hizkuntza ikasteko lehen eskolak eta nasategiak sortzen dabilta. Garabide elkartearen bidez, Euskal Herriko hainbat lagun han izan dira. Ilusioz eta lan egiteko gogoz betetako jendea ezagutu dute.



Amaia Ugalde Begoña

@amai_ugal

Jatorrizko lurretatik desplazatuta, Kolonbiako Cauca eskualdean, mendialdean, bizi dira nasak. Kolonialismoak eta gatazka armatuak jipoitutako herria da, nasa yuwe hizkuntzak ere kolpe handiak hartu ditu. Transmisioa ia etenda, kalkulatzeko dute nasen %20 inguruk dakiela nasa yuwe hizkuntza. Egoerari buelta emateko gogoz, ACIN erakunde indigenaren inguruan hizkuntza biziberritzeko lantaldea sortu zen, eta horretan dabilta; nasa yuwe ikasteko guneak sortzen, hizkuntza gaur egunera egokitzeko, herritarrek kontzientziatzen eta kulturgintzan pausoak ematen.

Nasa herriaren momentu berezia bertatik bertara ezagutu duten euskal herritarrekin izan gara, mahai bueltan. Mikel Mendizabal, Arkaitz Zarraga, Rosa Azkarate eta Rosi Oleaga Kolonbian izan dira Garabide elkartearen bidez. Garabide hizkuntza lankidetzan dihardu, eta horretan jardun dute lau lagunak: normalizazio planez berba egiten, ikastoletan eta euskaltegietan erabili izan diren metodologiak azaltzen eta Euskal Herrian bizitako erronka, buruko min eta ilusioak partekatzen.

Nasa yuwe hutsezko eskolak

Etxe askotan galdutako hizkuntza ume-umetatik eskolan ikastea garrantzitsua da hizkuntza gutxituen biziberritzean. Viviana Gonzalez nasa yuwe hutsezko eskolaren bultzatzaile nagusietako bat da. ACIN erakunde indigenak

komunitateetako 40 sustatzaile izendatu zituen hizkuntza berreskuratzeko, euren artean Viviana Gonzalez. Toribio herrian, hamar bat ikasleekin egin zuen lehen ikasturtea Luuçx Le'çxkwe eskolak, eta gaur egun 30 inguru dira. Aurten, eskualde bereko San Francisco herrian nasa yuwe hutsezko bigarren eskola zabaldu dute, 50 ikasleekin.

Hezkuntza komunitateko kideekin izan dira Rosa Azkarate eta Rosi Oleaga irakasle eta guraso legez, Euskal Herrian bizitakoa kontatzen eta formazio tailerrak ematen. Azkaratek azaldu duenez, Haur Hezkuntza planifikatzen dabilta nasak, eta batez ere txikiekin hitz egiten hasteko tresnak eskatu dituzte: jokoak, abestiak, adibideak... Matematikaren oinarriko lanketa eta irakurketa-idazketa prozesua ere landu dituzte.

Azkarateren berbetan, “hango gurasoek ikastolak hasi zirenean hemengoek zituzten antzeko ardurak dituzte. Galdetzen dute: ‘Umeek nasa yuwe ikasten dutenean, nola lagunduko diegu guk, ez badakigu?’ Galdera hori guraso erdaldun askok egin izan du Euskal Herrian”. Bestalde, ez da hizkuntza soilik eskola hauek tradizionalengatik bereizten dituen. Metodologia aldetik, nasek zerbait berritzaileak egin gura dute: “Ikusten dute Kolonbiako eskoletan erabiltzen diren metodologiak ez direla egokiak, eskola-porrota eragiten dutela”. Horrek ere, behinola ikastoletan sortutako kezka pizten du gurasoengan:

‘Beste eskoletan lau urterekin hasten dira irakurtzen, eta gurean zer?’. Zarragaren hitzetan, ikastoletan hasieran antzera gertatzen zen: “Gurasoek sartzen gintuzten guk jakin barik zein eskola motatara gindoazen. Gerora emaitzak oso-oso onak izan dira, eta hori jakitea nasentzat oso lagungarria da”.

Helduak, “nasategian”

Nasa herriko hizkuntza sustatzaileek familiekin ere egin dute lan. Etkez etxe joan dira hizkuntzari buruz berba egitera eta transmisioan egon den etenari buruz kontzientzia piztera. Sentsibilizazio lanari esker, heldu ugari hizkuntza berreskuratzeko pausoa eman du. Aurten helduak alfabetatzeko eta nasa yuwe-tzeko eskolak ematen hasi dira *nasategian*, eta ehun pertsonak eman dute izena.

Arkaitz Zarraga aurten egon da Toribion, *nasategia* ezagutzen eta euskaltegietako ereduan berri ematen. Metodologia lantzeaz gain, klasean baliatzeko materiala egiten ere ibili dira. Esaterako, merkatuan elkarriketak grabatu dituzte, gero *nasategian* bideoak ikusteko. Merkatua nasa yuwezko elkarriketa gehien ematen den gunea da. Ilusioz eta ikasteko gogoz sumatu ditu *nasategiko* ikasleak.

“Gu gabilta hau egiten”

Momentu garrantzitsu bateko protagonista dira nasa yuwe hizkuntza berres-



GARABIDE

Haur Hezkuntzako bi eskola dauzkate. Batean 30 ume ari dira eta bestean 50.

kuratzen dabilzan nasak, eta horrek eragiten duen ilusioarekin dabilza lanean. Badute irratia bat, eta asteen behin nasa yuwezko programa egiten dute. Izugarritzko audientzia du. Egutero ordubeteko saioa egitea pentsatzen dabilza. Zarragaren berbetan, “horrela egutero-egutero nasa yuwe etxeetara sartuko dutela diote; txispa bat sortu da eta indarra hartu du”.

Euskaldunekin duten harremanak euren ahalduz laguntzen duela uste du Mikel Mendizabalek: “Beti jaso dituzte zuriengandik ‘gaizki ari zarete, hau horrela egin behar da’ lako mezuak”. Euskaldunek, ordea, nasen hizkuntza biziberritze prozesua baloratzen dute: “Gurekin ikusten dute ez daudela bakarririk munduan, eta aukera horiek badau-

dela errealitatean”. Etorkizunean, beste herri indigena batzuen eredu ere izan daitezke nasak.

Nasak egiten dabilzan bidea euskaldunontzako ere garrantzitsua dela uste du Arkaitz Zarragak: “Euren prozesutik asko ikas dezakegu eta gurean egindako akatsak ere ikus ditzakegu”. Momentu hau oso inportantea da Zarragaren berbetan: “Esaten diegu, kontziente izan, oso gauza garrantzitsua egiten zabilzate”. Euskal Herrian bertan, bizitako prozesuaren kontzientzia falta dela komentatu du Rosa Azkaratek: “Normalizatu ditugu gauza batzuk, bai, baina gazteei agian ez diegu bidea transmititu. Seguru aski, informazio hori edukiz gero, euskararen erabilera beste modu batekoa izango litzateke”. ■

FARC eta armada

Kolonbiako Cauca eskualdean, Cali aldera zelaigune aberatsa dago, eta jatorriz, bertakoak dira nasak. Kolonialismo garaian kendu zizkieten lur horiek, eta gaur egun, zelai horietan azukre-kanabera monolaborantza dago. Lur horiek berreskuratzeko aldarrikapenak gero eta indar handiagoa dute nasa herrian. Mendian, gatazka armatuaren erdi-erdian, dago nasa herria. FARC eta armada dituzte albo banatan, eta minak, erdian. Narkoak eta paramilitarrak ere gertu daude. Labore ilegalak dira ekonomia ardatz: “Jendea bere oinarritako baratzeak landatzeaz uzten ari da, marihuana eta kokaina landatzeko”.

BABESLEA: **EMUN**

emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

HIZKUNTZA
ZERBITZUAK

KULTURA
ZERBITZUAK

ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO
ZERBITZUAK

PARTE HARTZE
ZERBITZUAK

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO

www.emun.eus

Ane Rodriguez

Tabakalerako zuzendaria

"EZ GATOAZ JADA EGITEN DIREN ERAKUSKETAK EGITERA"

Ane Rodriguezek duela hiru urte hartu zuen Tabakalerako proiektu kulturalaren lema. Bere eskutik iritsi da egitasmoaren jendarteratzea irail honetan. Flashak eta elkarrizketa asko, baina hasierako zarataren ondoren zer? Hauek dira Donostiako kulturgune handienaren barrenak.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

"Gauzak azkar doaz, ez du denborarik ematen komunikazioan eta euskarrietan daukagun gogoeta ondo islatzeko" dio Ane Rodriguez Tabakalerako kultur proiektuko zuzendariak lehen galderari –orain arteko balantzea nolakoa den– erantzunez. Eraikineko hirugarren pisuko bulego batean gaude. Sartzean ikusi ditugu lan taldeko kideak buru-belarri euren ordenagailuetan; *loft* itxura daukan espazio estreinatu berria, uda txiki-ko egun horietako bat, giro lasaia, argia sartzen sarrera nagusira ematen duen

leiho zabaletik. Hilabete eta erdi pasa da inauguratu zutenetik, hasiera jendetsuaren ostean pixkanaka forma hartzen ari da kultura garaikideko gunea, baina oraindik falta dira gerora eraikinean garrantzia izan behar luketen zenbait osagai. Esana zuten: irekitzea ez da iraileko zita nagusiarekin bukatu, udazken osoan estreinatu nahi dute tabako fabrika zaharberritua.

Hainbat inaugurazio egiteko adina metro behintzat badago hemen. Handiegia ere ez ote den. Donostian, are

Gipuzkoan honelako zerbait edukiz betetzeko adina masa kritiko ez sortzeak kezkatzen ote duen galdetuta ezetz dio, "ardura partekatua" delako. Alegia, dena ez dago Rodriguez eta bere ekipoaren esku, eraikinaren laurdena da gutxi gorabehera kultur proiektua.

Apuntea hartzen dugu: ondo desberdindu behar da zer den Tabakalera –eraikina– eta zer Tabakalera –egitasmo kulturala–. Bata espazioa, bestea dinamika; bata eskaparatea, bestea barruan aurki dezakezunaren parte bat, Euska-





diko Filmmategiak, Zineuskadik, Zinemaldiak, Kutxak eta Etxepare Institutuak egingo dutenarekin osatuko dena, baita beste zenbait ekimenekin ere. Edonola, Rodriguezek uste du ez direla behar bezala desberdintzen oraindik: “Edificioaren izen bera edukitzea bada zama, kultur proiektua epaitzen delako gai-nontzekoaren baitan”. Estreinatu eta berehala ikusi dute, moda desfile bat egiteko Tabakalerako espazio bat alokatu dutenean: “Ez genuen guk antolatu, baina ezinbestean jendea Tabakalerara

baldin badator gurekin lotzen da. Gauza horiek probatu egin behar ditugu, funtzionatzen duten ala ez; ditugun osagaiekin gauzak nola egin ikusi, ea gatz pixka bat gehiago behar duen edo olioarekin pasa garen”.

Beste inork egingo ez dituen erakusketak

Potentziala ez da txikia honelako espazioa eskura edukita. “Publikoen arteko harremana” aipatu du Rodriguezek in-dargune gisa. Eraikinean sartzen denak

“Diskurtsoa osatu nahi dugu erakusketak planteatzen ditugun heinean”



egin ditzakeen zirkuituak ditu buruan: “Kutxaren ikasgeletara datorren norbait gero liburutegitik pasa daiteke eta ondoren zineman ze programazio dagoen ikusi; edo alderantziz, gure erakusketa bat ikustera datorren kanpoko komisario batek hemengo zerbaitek ezagutu”. Asmo oso desberdinekin joango diren pertsonen elkar kutsatzea da xedeetako bat.

Esatea erraza da, baina publikoaren parte handi batek “arte” hitza entzun eta ondoren etor daitekeenaren beldurrez eskuak belarrietara eramateko joera daukan herri batean, hesi asko bota beharko dira. “Nik uste konplexu asko ditugula. Eta nire burua zakuan sartzen dut. Jakin behar dugu gauzak lasaitasun handiagoarekin ikusten”, dio Rodriguezek. Erakusketa garaikide baten aurrean “gustatzen zait” edo “ez zait gustatzen” esatearen alde agertu da, adibidez. Hobe da hori bere ustez, “ez dut ulertzen” esan eta bertan goxo geratzea baino.

Gomendioa praktikan jartzeko lehen aukera, Tabakaleraren estreinako erakusketa. *Ikus-entzunezkoen aldiriak* intentzio-deklarazio gisa ulertu behar

ote den galdetu diogu zuzendariari, ez baita, nolabait esateko, oso erakusketak “komertziala” –eta irekitzean gauza *mainstream*ago bat egitea barkagarria izango zen–: aztertzen ditu, besteak beste, ikus-entzunezko artearen ekoizpen, erreproduzio eta transmisio baldintzak, bisitariari hasieratik ahalegina egin dezan eskatuz. “Hau beste lan batetik dator, *Apologia/Antologia*, eta bi urtean aritu gara horretan lanean. Nahiko logikoa iruditu zitzaigun etxean abiatutako erakusketa bat egitea eta ez enkarguzko zerbaitek”. Koldo Mitxelena, Kutxa Kubo aretoa eta San Telmo ere hor daude, beraz Tabakalerak bere eredu aurkitu behar du, sorkuntza berriko erakusketak eginez; edo sorkuntza bultzatzen dutenak; edo ikerketa baten ondorioz presentatuko duten zerbaitek: “Gu ez gatoz jada egiten diren erakusketak egitera”.

Baina, *Ikus-entzunezkoen aldiriak*era itzuliz, aitortu du: “Bai, arreta eskatzen du. Eta guk hor erakunde bezala mediaziorako erremintak eskuragarri jarri behar ditugu. Ez da gure nahia, inondik inora, erakusketa itxiak egitea. Baina

diskurtso bat egin nahi dugu erakusketak planteatzen ditugun heinean. Ikasiko dugu erakusketa batetik bestera komunikazioa hobetzen; ariketa egin behar dugu testuek ere lur har dezaten. Bestela elkarriketa moztzen da eta ez da inora ailegatzen”.

Agintari berriak: plan aldaketa?

Azken udal eta foru hauteskundearen kanpainan 15 minutuko fama izan zuen Tabakalerak, Markel Olano Gipuzkoako EAJko zerrendaburuak Egiako eraikina “ikus-entzunezko puntako sormen gune” bihurtzeaz hitz egin zuenean, gaur egungo proiektuarekin bat egiten ez duen zerbaitek, alegia: momentuz diziiplina ugaritako praktika artistiko garaikideak dira ardatza, ez bakarrik ikus-entzunezkoak, ezta produkzioa huts-hutsean ere. Jakina denez, gero Olanok hauteskundeak irabazi zituen eta eraikineko administrazio kontseilua osatzen duten beste bi erakunde publikoak ere –Donostiako Udala eta Eusko Jaurlaritza– EAJren esku daude.

Abiatu eta segituan aldatzen hasi behar? Rodriguezek bi partetan espli-



“Hasi aurretik proiektu honen elementuak aldatzen hastea atzerapausoa litzateke”

“Horrelako proiektu bat irekitzeak ekartzen du hirian gauzak birpentsatzea”

“Ez da gure nahia, inondik inora, erakusketa itxiak egitea”

katu du gaiari buruzko bere iritzia, egun zentroak dauzkan helburuak gogora ekartzearekin batera. Bat: “Horiek aldatzea erabakitzen bada edo negoziatzea tokatzen bada, negoziatuko da. Nik ulertzen dut agintari bakoitzak badauzkala helburu finkatu batzuk; eta hori horrela izanda, negoziaketa batean sartu behar zara”. Bi: “Baina Tabakalerak hamalau urte behar izan ditu irekitzeko. Denbora behar da proiektua mamitzeko. Hasi aurretik elementuak aldatzen hasiko bagina, atzerapausoa izango litzateke”. Horrelako aldaketarik egiteko saiakerak izan ote diren galdetuta Rodriguezek ezetz dio: “Saiakerak baino, badaude helburu desberdinak finkatuta legegintzaldi batetik bestera”.

2012an hartu zuen proiektuaren gidaritzia Rodriguezek, panorama instituzional arrunt diferentearekin –Bilduren esku zeuden Gipuzkoako Aldundia eta Donostiako Udala; PSE-EEren gobernuak zeukan Eusko Jaurlaritzak–. Lau urtean behingo aulki jokoaren ostean agintari berriei harreman ona daukala dio, “eretzeko moduko uda” izan dute inaurazioarekin eta horren ondoren eseri

dira zuzendaria eta instituzioak. “Konbertsazioa” da harremana definitzeko erabili duen hitza. Zaintzea komeni den elkarrizketa, kulturgune honek eduki dezakeen proiektzioa edozein agintarientzat karamelua baita. “Hala da. Eta ez hemen bakarrik: Espainiako Estatuan ere horrelako proiekturik ez da ireki”.

Gutxi falta da 2016. urtean sartzeko

Elkarrizketa hau Donostiako Europako Kultur Hiriburuen banda jantzi baino aste batzuk lehenago ari da grabatzen. Hiriko programazio kultural publikoak koordinatzeko premia sortuko du zitak eta 2016aren bulegoak hartu du bere gain ikuspegi orokorra emateko zeregin hori. Tabakalera tartean dago noski, eta beste erakundeekin egiten ari den lana esplikatzen du Rodriguezek. Azaldu duenez, ez dago organismo erakunde arteko harremanak bideratzeko: “Nik uste 2016ak utzi beharko lukeen legatu horietako bat hori izan beharko litzatekeela, metodologiaren bat denon artean gauzak pixka bat koadratzeko”. Ebentoa pasako baita, baina egitasmo asko irauteko asmoz jarri dira martxan.

Aldaketa urtea izango da hortaz 2016a. Eta edozer kanbiatzen hasten denean bezala, erresistentziak sortu dira. Lagin bat, Nosferatu zine zikloa Antzoki Zaharretik Tabakalerara eramatearekin gertatu dena: saio batean zenbait ikusle lekurik gabe geratu zirelako zurrumurruren bat entzun da, garrantzi gutxiko kontua, baina aukera ematen duena galdetzeko ea Egia-koa bezalako espazio batek Donostiako eskaintza larregi zentralizatu ote dezakeen. “Horrelako proiektu bat irekitzeak ekartzen du hirian gauzak birpentsatzea” Rodriguezen ustez, “baina ez litzazuke gustatuko beste espazioak edukiz hustea”.

Pieza asko ari dira mugitzen Donostiako kultur eskaintzan eta Tabakalerak dantza horretan bere pausoa markatu beharko du, zentroaren nazioarteko izaera ahaztu gabe eta herritarrak erakartzen saiatuz. Seguruenik ideiak argiago iritsiko dira urriko egun honek bezalako isiltasunarekin, lehen asteetako zaratatik urrun, eta datorren urtean espero daitekeen espektakulua- ren aldirietan. ■

Intxaurrak bost, hitzak hamabost



Jakoba Errekondo

Aurten urte oparoa izan da, oro har. Lurra lantzen dutenentzat bezala, irakurtzen ari zaren ARGIA aldizkari honetan ari garenontzat ere. Fruitu ugari eman du; baita lurra ere. Kolko-sagar, hur eta besteren artean, intxaurrek ez da falta gure ganbaretan. “Intxaur urte, elur urte”. “Intxaur urte, arto urte”, urtea poliki dator bai, datorrenez, artoan ere. Bele saldoa gozo dabil bestetxeko atariko artasoroan, ale heldu berriei mokoka.

ARGIA berri hau egin denetik ez oso urruti bizi naizen etxeko atari aurrean badira intxaurrenondoak, jende askoren etxe ondoetan bezala. Ez du, ordea, lagun on fama, inondik ere auzolagun txarra, nonbait: “Intxaurrea, etxe ondoan txarra”. Intxaurrenondoak taktika eraginkorra du lurreko jakiak urrituko lizkiokeen landare konpetentzia eragozteko: berde dituen atal guztietan lika pozoitsu berezi bat jariatzen du, eta euria edo ihintza denero hura lurrera. Ondorioz intxaurrendopea libre. “Intxaurrearen azpian lo egitea txarra” eta “intxaur arbolak ez du lagunik nahi” ere esaten da.

Intxaur alea biltzen duen zokotena ere berdea da; esaeratik esaerara, “intxaur zokolina janez gero, hil”. Zokotenak eta eragiten duen orban beltzak badute “lepotarka” izen: intxaur-moz-



korra, zokolin, zokotin, zokoton, sokolin, sokoten, sokote, zoketen, mozkotz, moskol, moskolo, moskoron, moskaran, mozkan, moskan, moxkan, sokaran, so-kaan, soka, sokada, sakarin, nato, txakarin, txukaran, txokaran...

Garrantzi handiko fruitua da intxaurrea, bestela ez litzateke esaera hauetarako erabiliko: “Zorroan abarrots asko, baina intxaur gutxi”, “itxaur guti eta arroitut anitz” edo “intxaurreak baino hotsak handiago”. Beste aldaera hau ikasi

genuen guk ikastolan: “Intxaurreak bost, hotsak hamabost”.


Eta hamabost izen baino gehiago du, bai, aleak berak ere: intxaur, eltzaur, eltxaur, intxaus, unsaur, untxaur, giltzaur, giltzagur, intzaur, inzaur, insaur, entzagur, entzuur, etsagur, etzagur, etsabur, etxagur, etxaur, etxabur, exabur, etzaur, intxoar, intxor, intxur, intsaar, intzagur, intzagor, intzaor, itxaur, itzagur, itzaur, itzigur, inttur, heltzaur, heltzur...

Baina, “hiru edo lau intxaur nahiko”. ■

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago,
handitzen, berritzen eta gizarte
eta ingurumenarekin
konprometituta.

www.goizper.com Tel. 943 786 000



BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea • [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



Jon Sarasua eta Jakoba Errekondo elkarriketan:

Irauntza eta iraultza

Jakobaren baratzearen baztertxo batean jarri dut begia. Joxean Artzek egiten digu kuku kontrazaletik, eta Nemesio Etxanizek haren tolesduratik. Koldo Izagirre, Lauaxeta, Montoia, Juan Kruz Beloki, Borges edo Xabier Leteren aleak ere hortxe daude, ortuaren ertzeko barazki. Belar artean, Mixel Elizanburu Robert A. Millikanen ondoan, eta atzeraxeago Pello Mari Otaño.

Baratzea bizitzeko asmo horretan, esango nuke pista bat ematen digula idazle-aipuen bazter horrek. Sorkari biologikoei begiratzeko dugun moduak izan dezakeela zerikusirik sorkari kulturaleri begiratzeko dugun moduarekin. Balio-kolore bertsuekin kokatzen garela errealtatearen kiribil handi honetan, lurrari begira eta hizkuntzei begira, arlo guztietan jaso dugunaren zurrumbiloan, espazioan eta denboran gertukoenetik hasita, herentzian eman zaiguna eta biziarazten gaituena ongarrizteko. Oharkabea esanez iraultza, liburuaren aurkezpenean aipatzen den hitz lodi hori, iraultza ere badela.

Iraultza eta iraultza, hosiakidetasunak eta lehen kolpeko asoziazioak hala pentsarazten badute ere, ez dira geruza berreko hitzak. Apurño bat ibili naiz ni baratzean, eta, ohi den bezala, lurra iraulita edo astinduta jarri izan dugu. Duela urte batzuk bestelako proba egin genuen: permakultura-ildo batzuek diotenaren haritik, lurra irauli eta astindu gabe, bere hartan landatu genituen barazkiak. Hurrengo urtean ortuaren erdia irauli egin genuen, beste erdia irauli gabe utzi, eta barazki bertsuak landatu bietan. Izan genuen emaitza asma-kizun utzikotik dut irakurlearentzat, gaiak hondoan dituen susmo ideologikoen erantzuna bezala. Ez dakit nik ezer askorik, baina galderatxo batzuk baditut.

Ikasteko, norabide anitzeko jakintza eta talentu pedagogikoa biltzen dituen norbaitek laguntzen badizu, mauka ederra. Bietatik eurrez dauka Errekondok. Bere liburuan horixe egiten da asko: ikasi. Eta iraultzaren eta iraultzaren kontu honetaz zer diok hik, Jakoba?

Jon Sarasua

Jon, bertsolaria gaijartzaile!

Baratze kontuetan behintzat, iraultzea iraultzea dek. Hobe esanda: iraultzea iraultzea dek. Dek eta ez dek. Dena, den -dena bezala, baietzaren eta ezetzaren arteko hibrido soila da bizitzan, naturan. Esan gabe aipatu deken Masanobu Fukuokari galdetu behar...

Landareen aiekara hurbilduta, haiek ederki bereizten dituzte iraultza eta iraultza. Espezie bakoitzak egiten du hautua. Espezieari eusteko eta landare berriak sortzeko zein ugalketa era hautatzea da kaka. Sexurik gabeko ugalketari heldu diotenek klonak sortzen dituzte, hau da, alabak amaren berdin berdinak izango dira, sekula guztian. Gutxi irauteko arriskua du espezie horrek. Eta irauten duena irautenaren irauten irauten du, ez biziz. Ugaltzeko sexua, sexuen nahasketa hautatu duten espezieek, aldiz, etengabe hibrido berriak sortzen dituzte, amaren eta aitaren artekoak. Horixe da haziaren mirakulua, dagoen eta gauza naturalena. Etorkizuneko oro lehengoan desberdina izango da, jeneralean hobe, egokiagoa. Iraultza: lehengotik berria, beste bat. Hobetutako ama izango da hazitik datorren alaba. Eta hobetze horrek biziko ditu ama eta alaba; bizi-bizi bizi.

Iraultzan, irauten duenak ez du etorkizunik. Lehentxeago edo geroxeago galdu araziko duen zerbait sortuko da.

Iraultzan, etorkizunera egokitzen dena bizitzara jartzen da. Bizi da eta biziko da. Eta biziko direnak sortuko ditu.

Arrazoi dek Jon, iraultzeak iraultzea dik oinarri. Zer irauli ere behar baita. Iraultzak, ordea, iraultza hutsak baino zerbait gehiago badik: irautetik bizitzera dagoen kokxa ttiki horixe. Eta, ez al zaie herriei edo kulturei landareei bezalatsu gertatzen? Animalia kontuetan neure aldean jantzia haize-nez, heuk argitu beharko diguk... Ni, badakik, landareen alde: bizi. Heu, bazekiat, baita ere.

Jakoba Errekondo

Eskaerak: 943 371 545 • www.argia.eus/denda • denda@argia.eus Zure saltokian salgai jartzeko, jarri harremanetan gurekin.

Salneurria: 23 € • Harpideentzat: 19,50 €

GORROTO PLATONIKOA




Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Atenas, K.a. 387. Platon greziar filosofoak Akademia sortu zuen, eta bertan hainbat gairi buruzko eskolak ematen hasi zen: etika, psikologia, antropologia, epistemologia, metafisika, kosmogonia, hizkuntzaren eta hezkuntzaren filosofia... Sokratesen ikasle izana, Platonek berak ikasle bikainak izan zituen Akademiaren, Aristoteles esaterako.

Baina zorroztasuna funtsezkotzat jotzen zuen arren, ez zuen lortzen ikasle guztiak eskola hasteko garaiz iristea. Garai hartan denbora neurtzeko gailuak bazeuden, esaterako, eguzki-erlojuak eta klepsidrak. Klepsidra izena grekotik dator: *kleptein* hitzak lapurtu esan nahi du eta *hidor* hitzak, ura. Beraz, “ura lapurtuz” denbora neurtzen zuen gailua zen. Mekanismo soila zuten klepsidrek: ontzi bat urez betetzen zuten eta azpialdean zuten zulotxo batetik urari pixkanaka isurtzen uzten zioten, jario etengabe eta erregularra eraginez; hala, ontziko uraren mailak behera egiten zuten, bidean ontziaren barruan adierazitako denbora tarteak markatuz –edo bestela, markak ura isurtzen zen bigarren ontzi batean ipintzen zituzten markak, bete ahala orduak jo zitzaizkion–.

Baina klepsidrak alferrikakoak ziren iratzartzeko. Morfeoren atzaparretatik ihes egiteko metodo bakarra oilarren kukurrukua zen, baina Atenasko Akademiaren ingurukoak ez ziren oso fidagarriak, nonbait, eta Platonek sistema zehatzagoa asmatu zuen. Besterik gabe, alarma bat gehitu zion klepsidrarri. Behean hermetikoki itxitako beste ontzi bat erantsi zion, biak hodi baten bidez lotuta. Lehenengo ontziaren barruan sifoi bat ipini zuen. Aurreikusitako unea iristean, sifoiak ura botako zuen, mugitutako aireak bigarren ontzia beteko zuen eta goiko aldeko zulo txiki batetik ihes egingo zuen, teontzietan lurrinak egiten duen txistuaren modukoa eraginez. Horrenbestez, Platonek lehen iratzargailua asmatu zuen. Gai-



GLYPTOTHEK MUNICH

Platonek (K.a. 427-347), ikasleak akademiako eskoletara garaiz iristeko sistema baten bila, iratzargailua asmatu zuen, gizateriaren zoritxarrerako.

luari zintzarriak eransteako asmoa zuen, asmakizuna eraginkorragoa –eta gorrotagarriagoa– izan zedin. Baina ikasleez gupidatu zen, nonbait, eta ez zuen mehatxua bete.

Gerora, iratzargailua “hobetu” nahi izan zutenak arduratu ziren horretaz. Adibidez, ura isurtzen zen bigarren ontzian metalezko bolatxo betetako plater txo bat jarri zuten. Ura plater txoraino iristean, platera makurtzea eta bolak metalezko hirugarren ontzi batean jautzea eragiten zuten. Burrumba edonor esnatzeko modukoa izango zen. Beste bertsio batean, ontzia urez betetzean jausi egiten zen, eta harri bat metalezko plater batera jaurtitzen zuten katapultak modukoa abiarazten zuten. Kandela baten barruan bola bat sartuz gero, argizaria urtzean bolatxoa askatu eta metalezko gainazala jotzen zuten.

Eta hala, goizeroko tortura mekanismoa apurka finduz joan ziren, baina lehen iratzargailua asmatu izanaren zailtasunak ohorea Platoni dagokio. Orain badakigu goizero noren izena madarikatu. ■

Lehen Mundu Gerrako beste milioika biktimak


Hamasei milioi animalia inguruk parte hartu zuten Lehen Mundu Gerran, bi aldeetako armadetan: txakurrak, katuak, ekipamendua garraiatzeko zaldiak, mandoak, astoak eta ganbeluak, uso mezulariak...

Zaila da gerretan biktima kopurua zehaztea, are zailagoa animaliak badira. Baina haien erdia baino gehiago hil zirela kalkulatu da. Zortzi milioi zaldi inguru hil ziren, eta milioitik gora txakur ere galdu ziren frontean. Gizakietan bezalaxe, animalietan ere biktima “zibilak” izan ziren, gainera. Horrenbestez, Gerra Handiko hildako gizaki kopuru izugarriari (hamar eta 31 milioi artean) beste hamar bat milioi animalia gehitu behar zaizkio. ■



650 ofizial eta soldadu aliatuk irudi hau osatu zuten 1915ean, frontean hildako zaldien omenez.

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:



1. Hamar bider hamar. Digestio-hodiaren zati. 2. Gambiako herritar. Rhesus faktorea. 3. Nahaste. Delitu edo lege-hauste larria. 4. Basati. Seme edo alaba bat edo gehiago dituen emakumea. 5. Kilogramo. Aditz-mota. Errape. 6. Laguntza. Esaera zaharra. 7. Animalia basatia. Danbadak, desarrak. 8. Letra izena (pluralean). Herrikoi bihurtu.

Goitik behera

1. Lekale ([argazkian](#)). 2. Animalien zati mamitsu. 3. Helduegi dagoen fruitu. Kupela. 4. Niobioaren sinboloa. ... bat, batez ere. 5. Beldurrez. 6. Zuntza. Torioaren sinboloa. 7. Gaixo. Da, haiei. 8. Maltako herritar. 9. Ogi mota. 10. Euskal nortasun agiria. Intsektu mota. 11. Utikan! 12. Eguraldi. 13. Motorrik gabeko ibilgailu. 14. Norentzat atzizkia. 15. Zorro handi.

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen
hizki berak ditu, bat izan ezik, baina
bestelako hurrenkeran.

Poza
Logale handi
Hosto multzo
Ildoki, mukur
Metal astun
Arrautzak jarri
Neu, nihaur
Txiza
Lantu, kexu
Airean higituz
Hortz
Bezala, gisa
Diru-zigorra

[illegible]

Sudokua

Erraza

	3	1	4	7				6
7	6				1			5
9			2	6			1	
	7			2	3			1
4		6	5	8	7	3		9
3			1	9			6	
	9			5	2			4
5			7				3	2
1				4	6	5	9	

Zaila

	9	6				1		
8	2							6
		1			6		7	
				5		8		7
			4		1			
6		8		2				
	1		7			9		
4							3	1
		3				5	4	

Soluzioak

ESAERA ZAHARRA

ESAJERA ZAHARRA

ANAGRAMAK
LORIA
LOERI
ORBEL
ENBOR
BERUN
ERRUN
NEGAR
HEGAN
HAGIN
GISAN
ISUNA

14. 17ar 15. Zaku.
 9. 17emes, 10. Elna, Ot. 11. Utik, 12. Giro, 13. Atol.
 4. Np, Bvük, 5. Ikaraz, 6. Haria, Th. 7. En, Zale, 8. Malatar.
Goitik beheira: 1. Egoskar, 2. Haragi, 3. Umel, Upa.
 Atsotitza, 7. Pizita, 8. Ixak, Herrikotlu.
Kriker-ekurri: 1. Elnu, Heste, 2. Gambiar, th. 3. Ore,
 4. Salbai, Ama, 5. Kg, Arziale, Ugaz, 6. Aitua,

[illegible]


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Alicetik Aliziara



Xabier Etxaniz Erle



Alizia herrialde miresgarrian LEWIS CARROLL

Ilustrazioak: John Tenniel
Itzulpena: Manu López Gaseni
Pamiela, 2015
141 orrialde

Liburu honek ez du aurkezpenik behar. Haur literaturan klasikorik bada, haxe dugu, Lewis Carrollek Tamesis ibaian zehar paseo batean kontaturiko istorio hartatik abiatutako nobela ezaguna. Mende eta erdi justu pasa da paseo hartatik, 150 urte arratsalde hartan kontaturiko istorioa liburu bilakatu zela eta egilearen irudien orde John Tennielen ilustrazio paregabeekin argitaratu zenetik; liburuko lehen paragrafoan bertan Aliziak dioena ("Zertarako balio du liburu batek irudi eta elkarrizketarik ez badauka?") osatuz.


Aliziaren abentura hauek lehendik ere argitaratu izan dira euskaraz, hain zuzen Pamiela etxeak eta oraingo itzultzaile berak 1989an eginiko edizioa dugu honen aurretik. Orain, baina, 150. urteurrenaren harira, gure artean oso ohikoa ez den arren, itzulpena berregitea erabaki dute eta oraingo gazteei eta oraingo euskarari egokituriko itzulpena egin du Manu Lópezek, eta hori liburuaren izenburutik bertatik nabari dezakegu: aurreko Alice hura Alizia dugu orain. Baina izenetatik harago doan aldaketa da, errazago korritzen duen testua dugu, hizkera aldetik gertuagoa, jatorrizko egiturari ez hain lotua, eta horrek irakurketa laguntzen du, zalantzarik gabe. Bertsioa euskal bertsio bilakatu, gure tradizio elementuak hain ingelese den tradizio honetan txertatuz, hala nola Untxi Zuriaren bertsoak: "Xarmagarrria zara, eder eta gazte, / ene bihotzak ez du zu baizikan maite. / Zurekin ezkontzeaz dudarik ez nuke, / igerian ez dakit, ordea, ai ene!". Edo Hator Hator ezagunaren bertsio bitxia:

"Hator, hator; saguzar hona / zizare gozoak jatera! (...) Gure gaua ospatutzeko / hontz ta mozoloaren ondoan...".

Aliziaren abenturak haur literaturako aurreneko obretako bat da, eta *nonsense*, zentzugabekeria, du oinarri; jolasa, abentura eta disparte. Entretenimendua, irakurlearen (jatorrizkoan entzulearen) gozamenarako egindako testua. "– Zer dakizu auzi honi buruz? –, galdetu zion Erregek Aliziari. / – Ezer ez-erantzun zuen Aliziak. / – Ezertxo ere ez? – berrekin zion Erregek. / Ezertxo ere ez– esan zuen Aliziak. / – Hori oso garrantzitsua da– esan zuen Erregek (...) / – Garrantzigea esan nahi du berorren Maiestateak (...)".

Eta irudiek ere gozamen horretan laguntzen dute; are gehiago Pamiela etxeak egin duen edizio zaindu honetan, jatorrizko grabatu eta ilustrazio haietako asko koloretan argitaratuz.

Arrazoi asko daude Aliziaren bertsio berri honetara hurbiltzeko, klasiko bat dela, erreferente bat, jolas polita... baina, benetako arrazoi liburuan bertan dago, oraindik ere irakurlea harrapatzen duelako, gozatzeko une paregabea eskainiko digula, alegia. ■



» TELEGRAMA

Bilbao Hiria Pop Rock lehiaketaren finalak azaroaren 12tik 14ra: joera berriak, pop-rock eta metal kategorietan nor baino nor ari diren hainbat talde Bilborocken **STOP Howlin Rain** talde estatubatuar psikodelikoak Gasteizko Hell Doradon (azaroak 13) eta Hondarribiko Psilocybenear (azaroak 14) joko du Euskal Herrian egingo duen osteratxoan **STOP** Gasteizko **Nazioarteko Antzerki Jaialdia** martxan da azaro hasieratik. Hiru obra ikusteko aukera dago aste honetan Principal antzokian **STOP** Bi hamarkada elektronika eta aldarrikapena uztartzen: **Asian Dub Foundation** zuzenean ariko dira azaroaren 12 honetan Bilboko Kafe Antzokian.

» DISKOA

Hiru burmuin borborrean eta naturaren deia



Medusa
VOLTAIA

Mauka



Iker Barandiaran

Voltaia Zumaiaiko hirukote gaztea da. Itaka eta Got Ham taldeetako errautsetatik sortu zen 2014an. Hala ere, hain ibilbide motzean zeresana ematen ari dira beraien ingurunean, rock gogor eta arriskutsuenaren eremuan eta hainbat hedabide espezializatuetan. *Voltaia* izeneko lehen lan auto-ekoiztuak (kopia gutxi batzuk argitaratu zituzten) stonerrean zeukan oinarri nagusia: benetako power-trio-a izatearen energia, erritmo pisutsu eta monolitikoak, eta kutsu oso zikineko gitarra riff bereizgarriak, batez ere. Bestalde, hirukotearen ahotza eta erdietsitako erregistroak ez dira edonolakoak; eta punkarekiko zein erdizkako tempoekiko hurbiltasuna erakusten zuten.

Talde hasiberriek, mediatiokoak ez diren hiriguneetatik abiatuta, ezagun bihurtzeko dituzten zailtasunak poliki-poliki saihesten joan dira, Voltaiaok dakiten modu onean: sinesten duten horretan gogor lan egiten, publikoaren onespina bilatzeari bizkarra emanez. Beraientzat sortu eta garatzen dituzte kantuok eta horrek bihurtzen du taldea sinisgarri eta egiazko.

Orain bigarren lanarekin datoz eta zazpi kantuko estreina-

ko lanak gogoz utzi zituenak asebeteko ditu. Euskaraz abestutako hamaika kantu, gordinak guztiak, eta stonerrearen osagarriak nagusi izan arren, asko dutenak barrura begiratzetik eta esperimentatzetik. Ioi, neutroi eta elektroien eztandak voltaia sor dezake leku askotan; baina olatuek, kostaldeko haize bortitzek eta hiru musikazale amorratuen sormenek ere hori eta gehiago piztu dezakete. Inoiz taldekideek edo haien hurbilekoek taldea stoner-punk band gisa definitu badute ere, hori motz gelditu da dagoeneko. Izan ere, estilo askotatik edateaz gain, kantuek garapen eta erritmo aldaketa ugari dute. Bistan da hirukoteak kantuak idazten eta garatzen izugarri disfrutatzen dutela.

Ikuskizun kantuak stonerrearen patroi guztiak betetzen ditu; *Ez dugu men egingo* rockzaleek eta stonerrek autoa gidatzeko ezin aproposagoa da; *Bizioak* stoner monolitikoena 70eko hamarkadako talde handienekin eta progresiboekin ezkontzen du; *Ukabilak eta Uholdeak*, gogorrak izanik, asko dute hard-rocketike eta psikodeliatik; baita *Medusak* ere baina azken honek metala ere badu helmuga; *Otsoa ardiz jantzita* flitschetako balada gordina da; eta *Hil baino lehen* punk-rock gogorrenetik abiatu eta ia industrialia bihurtzen den torpedo itzela. ■

EIDER ITURRIAGA



Joseba B. Lenoir Gang

Urdinetik beltzerat

JOSEBA B. LENOIR GANG

MIARRITZEKO ATABAL ARETOA
URRIAREN 23A

Taldearen webgunea:
www.josebalenoir.com



Andrea Zubozki

Miarritzeko Atabal aretoak 10 urteak ospatzen dituela, urri-azaro honetan kontzertu parrasta bat ikusteko aukera badugu. Pasa den urriaren 23an, Joseba B. Lenoir Gang Atabaleko oholtza gainean izan zen. Bere bakarleri bidean, Lenoir formula ezberdinekin ezagutu dugu, eta Gangarekin itzultzen da azken denbora hauetan. Gangaren barne, Willis Drummondek batera eta baxua, eszenaren gibelaldean, haien aitzinean Napoka Iriako kideak gitarra elektriko, akustiko, ahotsak. Napokakoen erdian kokatzen da Joseba B. Lenoir. Atabal bezalako aretoek, kontzertuei kalitatea gehitzen diete (soinu-argi). Baina publikoarekiko hurbiltasuna galtzen da. Kontzertua ikusgarri bilakatzen da, publikoa ikusle. Gelarat sartzean, publikoko jendeak han hemen gela okupatzen, erosoki instalatuak. Eszena aitzina nahiko huts. Argazkilariak bakarrik. Baina Gangekoentzat berdin. Haiek kontzertua emaiterat etorri dira, eta gu gozatzerat.

Gang pollita bildu du Lenoirrek. Bakoitzak bere rola biziki ontsa betetzen



du; bateria zuzen eta libre bat giblean, kantuen hutsuneak apaintzen. Bonboaren kolpe azkarretan, baxua ere presente: "BUM!" inpaktua bular artean sartzen da, eta bururaino igaiten, betiko balantza horren sortzeko, aitzin-gibel.

Ez zaitut behar kantuan, bateriak sortutako erritmo erregular batek "frenesia" sortzen du. Zonbi batzuk bezala, publikoa kontzertuan sartua da, burua gora-behera.

Eszena gain aitzinean orain; gitarra ezberdinak, afinazio ezberdinak. Nahiz eta Josebak *Lead* rola bete, beste gitarrak hor dira ere, noiztenka laguntzaile sinple, noiztenka askatasun gehiagorekin gaineko noten ferekatzen. Josebaren solo batzuetan, beste gitarra bat etortzen da harekin jostatzerat.

Aitzineko hiru ahotsak sentitzen dira *Erraieratik erran* kantuan. Xuxentasun ikaragarria...

Eta gure protagonista? Dena *jeanez* bezitua, eszena zentroan balantzaka ari da, uhainek mugiarazten dituzten itsas landareen gisa. Ahotsa xuxen, presentzia ederra zinemarik gabe, gitarra

gorputzarekin bat, riff onak eta solo direktuak botatzen dauzkigu.

Itoizen bertsio bat, Mirenek (biziki ontsa) kantatzen duena. Afinazio arazoak aldiz Josebaren gitarrarekin... Alabaina! Atsegin du soken tiratzea eta bere gitarra sufriaraztea!

Bukaerarat heltzen ari gira, eta gitarra berezi bat ateratzen dauku; xuri xuria eta forma bitxi batekin. Afinazio berezia baita ere (D,A,D,G,A,D uste dut). Kantu instrumental bat emaiten dauku Gangak, intentsitatean igaiten diren horietarik. Enetako kontzertuko momenturik hoberena. Azpimarratzekoa bateriaren lan harrigarria kantu horretan. Bukatzen da; ohartu gabe bizpahiru metroz aitzinatu niz.

Itsu eta biluzik emaiten daukute eta uste dut horretan bukatu dela kontzertua. Ene sentsazioa, beti bezala... horrelako aretoetan, kontzertuan sartu ordutik, bukatu da...

Maitatu dudak kontzertu bat. Orain ikusi nahi nituzke taberna batean, eszenarik gabe, botatzen daukuten energiaren inpaktua zuzenki biltzeko. ■

Marina Garcés. Gerrilla filosofia baten alde



Irakaskuntza, idazketa, seme-alabak eta pentsamendu praktiko, kritiko eta kolektiboa dira Marina Garcés filosofoaren egiteko nagusiak. Zaragozako Unibertsitatean irakasle, urteak daramatza Bartzelonako aktibismoan, beti ere adi, gizakion arteko derrigorrezko loturak zertan diren. Ez alferrik, gure askatasun pertsonal eta kolektiboa hor jokatzen baita.

“Bizitzen ari garen aldaketa interesgarrienetako bat da bizitzaren politizazioa”

Intelektuala

Aldaketa soziologiko inportante bat bizitzen ari gara: tradizionalki, intelektualaren figura klase eta genero kondizio bati lotuta zihoan, lanetik liberatutako figurak ziren, etxeko lan eta erreproduzio lanetatik liberatutakoak. Orain, pentsatzen eta idazten dihardugun pertsonak prekarioak gara, gizon-emakumeak, bizitza materialarekin erlazio zuzena duen erregimen batean bizi garenak. Bere hitz askearekin agertzen zen intelektuallarengandik oso urrun, gaur gure hitza ez dago aske, ez ekonomiarekiko mendekotasunetik, ez etxeko bizitzarekin edota bizitza materialarekin dugun tratua zuzenetik. Eta dena aldatzen du horrek. Tendentziak aldatu direla esaten da, baina ez, pentsatzen dugun lekua da aldatu dena. Eta gaur hortik ari gara pentsatzen, leku hartzen, konprometitzen, kolektiboki bizitzen.



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga

ARGAZKIAK: NÚRIA JUAN SERRAHIMA

Zein dira gaur egunean filosofiak erantzun beharko lituzkeen galderak?

Filosofiak beti galdera berdinak egiten dituela esan ohi da, eta egia da. Baina galdera berdinek gauza diferenteak esan nahi dituzte testuinguruaren arabera. Gaurkoak badu errotik berria den osagirik: hasteko, Europako kontzientzia jada kontzientzia unibertsala ez den mundu batean bizi gara. Eta filosofiak betiko galderak pausatu behar ditu, baina beste batzuekiko harremanean, galdera horiek bestela pentsatu dituztenekiko harremanean. Gero, ez dezagun ahaztu gure garaiko gairik behinena: ez bakarrik mundu global batean, planeta akitu batean ere bizi gara. Hartara, nola bizi, nola pentsatu, nola jardun bezalako galdera sinpleak esperientzia berribilakutzen dira.

Osagai horiek ekarri dute filosofia eztabaida publikoan gehiago sartu izana?

Batera gertatzen ari da, batetik, filoso-

fiaren krisi instituzional bat: akademi-zazioak ez die gure garaiko desfioei erantzunik ematen, filosofia bere baitan itxi da, merkatuak kanporatu egin du hezkuntza sistematik. Eta, bestetik, filosofiaren edo pentsamenduaren biziberritze sozial bat gertatzen ari da. Bizi dugun zibilizazio krisiak galdera garrrantzitsuak bilatzeko ezinegona dakar, denbora-pasa orokorrean ez galtzeko. Filosofiaren eskaera bat dago, inporta duena pentsatzeko beharraren sintomak dena.

Akademia aktibismoarekin uztartzen duzu, hartara.

Filosofia bizitza jardun bat da niretzat: pentsatzen da biziz eta bizitzen da pentsatuz. Filosofia ekintza esperimental bat da halaber, jartzen gaitu garenaren, dakigunaren, pentsatzen dugunaren mugan, eskaintzen dizkigu tresna batzuk bizitza esperimentatzeko. Eta filosofia niretzat konpromiso baten adierazpena ere bada, hodeietan bizi den filosofoaren ideiatik urrun, beti izan da kolektibitatearekin dagoen konpro-



“Gakoa da deskubritzea elkarri lotuta gaudela, eta ondorioz konprometituta”.

misoaren adierazpena. Filosofia ez da onanista, jaiotzen da elkarritzeta, interpelazio, topagune gisara. Eta hainbat eremutatik egiten da. Nire kasuan, irakaskuntza, aktibismo eta esperimentazioetik.

Zuk esana: pentsatzen da eta mundua eraldatzen da bazkaria egin bitartean.

Filosofia jasaten ari den asfixia, bizitzarekin kontaktua galtzetik dator. Gure gizartean espazio publiko eta pribatuaren arteko mugak lausotzen joan dira. Tradizio luzea dauka banaketak: hitza bizitza publikoan, gure produkzio, erreproduzio, lan, ohiko bizitzaren eremuetatik kanpokoa da; eta etxea, aldiz, espazio pribatua, kontzientzia indibidualaren, bizitza pribatuaren eremua. Bizitzen ari garen aldaketa interesgarrienetako bat da bizitzaren politizazioa, bizitzatik pentsatzen ari garela.

Hala sortu dira subjektu berriak, kartografia berriak, gramatika berriak.

Feminismoan gehien eragin duen gauza bat da, ez hainbeste eskubide eta

errebindikazio maila batzuk lortu izana, baizik eta aldatu izana subjektu politiko gisa geure burua ulertzeko modua. Lehen lerroan jarri da etxeko paretan barruan baztertua izan dena, zaintza, interdependentzia, zaurgarritasuna, gorputzaren, hitzaren eta pentsamenduaren arteko harremana. Akzio politikoa ez dago instituzioetan soilik, baizik eta bizitzan, hitzaren zentzurik biluzienera.

Diskurtso propioari garrantzia ematen diozu.

Arazoak jartzen dituenak aurkitzen ditu soluzioak. Politika erreaktiboa, protestaren kultura, garrantzitsuak dira. Baina bakarrik erantzuten bazaio botereak egiten duen horri, botereak beti izango du errealtatea sortzeko gaitasuna. Agenda aldaketa ez da programa aldaketa bat, arazo aldaketa baizik. Zein dira gure garaiko arazoak, benetan inporta digutenak. Politika beste gauza batzuk egiten has badaiteke, desplazamendu hori egin beharra dago.

Eta denok konprometituta gaude bizi garen munduarekin.

Munduari begiratzen dion subjektu bat jaso dugu herentzian, esku-hartzea, eraldatzea, iraultza egitea erabakitzen duena. Konpromisoa, beraz, ekintza boluntarioa litzateke, baina beti kanpoan dagoen zerbaitekiko. Gaur horrek ez du zentzurik. Egiten ari garen desplazamenduan, deskubritzen ditugu gure arteko dependenziak, loturak, harremanak, singularra baina era berean plurala den subjektu bat. Belaunaldi berriei gertatu zaie, zergatik konprometitu honekin eta ez beste honekin. Gakoa da deskubritzea elkarri lotuta gaudela, eta ondorioz konprometituta.

Ez gara ezer besteak gabe; baina nola egin bizitza komun hori?

Ezin gara gelditu gertatzen zaigun horri buruz hizketan: hitz egin behar dugu gertatzen zaigun horretatik. Eginez bakarrik lor daitezke munduarekin harreman ez hain birrintzaileak eta justuagoak irekiko dizkiguten hitzak, teoriak, ilusioak. Eta “nola” horrek erantzun asko dituen momentu batean bizi gara. ■



Ongi etorri Beranduegira. Zer? Bai, pixka bat arraroa hau paperean irakurtzea, ezta? Jo, izan ere, hainbeste murriztu zaigu aurrekontua, Beranduegiko ekipoaren traje, gorbata eta otorduak –batez ere otorduak– kentzea beste erremediorik ez zaigula geratu. Orri hau Wyoming horren programa bezala ikusi nahi baduzu, erabili irudimena, hori behintzat debalde da eta. Oraingoz.

Ezetz ba, Iñigo Urkulluk ez duela alde bakarreko prozesuetan sinesten. Hori katalanentzat. Lehendakariak bi aldetako prozesuak defendatzen ditu, Moncloarekin elkarrizketa eta otordua bukatzean papurrak txukun-txukun tuperrean bilduta txintxo demonio buelta Sabin Etxera. Astelehenean Euskadi Irratian esan du “guk beste herri zentzu bat” dugula: “Kontzertu ekonomikoa dugu”. Ez genuen ezagutzen lehendakariaren musika zaletasun hori. Baina, pentsatzen jarrita, egia da dezente kantatzen ari dela Kataluniari buruz hitz egiten duen aldiro.



Xabi Payak dio ez duela Kortxoenea eraitsi

“Donostia 2016ko kultur zuzendari gisa ez dut zerikusirik Kortxoenea-
ren eraisketarekin” adierazi du Xabi Payak. Esaldi horrekin, gezurtatu egin du gaztetxea botatzen hasi zirenean zabaldutako zurrumurrua: hondeamakinarekin lanean ari zen pertsona “ari naizela, ari naizela” doinuarekin bertsotan entzun zuten lekukoek eta, normala den bezala, berehala piztu zituen Paya izan zitekeen susmoa. Ba ez, ez zen bera. Lotu zuen txakurrak. Eta txirulak.

EH Bilduk lege bat proposatZZZzzzzZZZzzzz

EH Bildu koalizioak Herritarrak Ahalduentzeko Legea aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean. Lege horren bidez, koalizio subiranistak ahalduentzearen terrenoan daukan esperientzia zabala helarazi nahi die Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrei. Gipuzkoan azken lau urteetan egindako esperientzia pilotua hartuko dute abiapuntu gisa. Izan ere, pentsaezina zirudiena lortu zuen EH Bilduk: Markel Olano ahalduentzea.

Gasteizen ikusia



Odol berria Urdaibaiko trainerurako

Urdaibai Arraun Elkartearen aurkako epaiketa amaitu da –Kontxako badia hiru bider betetzeko adina substantzia txungo aurkitu zizkieten armairuetan–, eta epaia ezagutzea besterik ez da falta. “Ze ostia, ez gara egongo juezaren zain, ez eta arteria ere”, deklaratu du klubeko zuzendaritzak, eta Urdaibairen izen ona garbi-

tzeari ekin diote: orain arteko arraunlari guztiak istriborretik behera bota eta curriculum handiko izenak fitxatu dituzte. Datorren denboraldirako posterra ere prest dute dagoeneko. Patroi lanetarako Jose Luis Korta berdaderoari egin diote eskaintza, baina Oriokoak “no!” erantzun die eta beste telefono bat txikitu du.

Perretxiko zaindariak



Atsegin duzu perretxiko bila joatea?

Horrela bada, jolas honen bidez perretxiko biltzaile arduratsua eta bikaina bihurtuko zara

- Perretxikoak ezagutu
- Ingurunea zaindu
- Perretxiko-bilatzaile ona izan.

Basora joan eta aukeratu zure ibilbidea eta helburua.

Hiru helburu, hiru jolas, taula berean.

Perretxikoak bildu ahal izateko galdera bati erantzun beharko diozu. Hiru erantzun posible izango dituzu!

27 euro

Harpidedunentzako:
24,00 euro



+8



2-4



20-40 min.

Eskærak:

☎ 943 37 15 45

denda@argia.eus · www.argia.eus/denda

Industrialdea, 15 - 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

 **ARGIA**



gure artean e))) **euskaraz**

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.